



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

EMAKUMEAK ETA KIROLA: badaude genero-estereotipoak Lehen Hezkuntzan?

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Maialen Naberan Uranga

ZUZENDARIA: Vizcarra Morales, Maria Teresa.



2017

LABURPENA

Lan honetan, gizartean gizon eta emakumeen artean dauden ezberdintasunen inguruan hitz egiten da, beti ere kirolera bideratuta. Gizarte androzentrista batean bizi garela nabaria da, emakumeek komunikabideetan duten agerpena ikustea besterik ez dago. Horien eta beste hainbat eragileen ondorioz, estereotipoz beteriko gizartea dugu gurea. Horrekin batera, diskriminazio egoera ugari sortzen dira, bai eskola barruan eta baita eskolaz kanpo ere, kontziente edo inkontzienteki. Komunikabideek eta eskolek bezala, familiak eta lagunek ere zerikusi handia dute. Beraz, eragile hauen lana beharrezkoa da genero berdintasunaren aldeko borrokan.

Hori horrela, Gasteizko ikastetxe bateko 6. mailako ikasleei galdetegi pertsonalak pasa zaie eta eztabaidak sortu dira, bi tresna horiekin informazioa jaso eta aztertu ahal izateko. Horrekin, gazteek egungo kirol munduaren inguruan zein ideia duten eta beraien errealitatearen berri jakin da.

Aztertutakoarekin ondorioztatu daiteke, egun, gizartea poliki-poliki aldatzen doala. Beraz, egungo heziketa, berdintasunean oinarritutako gizarte baterantz doan bidean doala esan daiteke. Hala eta guztiz ere, lan asko egin behar da bide horretan aurrera jarraitu ahal izateko.

Hitz-gakoak: Generoa, kirola, aurreiritziak, estereotipoak, sexismoa eta gazteak.

RESUMEN

En este trabajo, se habla de las diferencias que existen entre hombres y mujeres, en el ámbito del deporte. Es obvio que vivimos en una sociedad androcentrista, esto lo podemos observar en la escasa aparición que tienen las mujeres en los medios de comunicación. Como consecuencia, nuestra sociedad está llena de estereotipos. Ligado a esto, surge la discriminación dentro y fuera de los centros, de manera consciente o inconsciente. Tanto los medios de comunicación y las escuelas, cómo la familia y los amigos, desempeñan un papel fundamental en la lucha por la igualdad de género, por eso el trabajo de éstos es imprescindible.

Dicho esto, a las alumnas y los alumnos de sexto de una escuela de Vitoria se les ha efectuado un cuestionario personal y posteriormente se han realizado varios debates. Con estas dos herramientas se ha recogido información para después poder analizarla. Gracias a esto, se ha conocido la idea que poseen niños y niñas sobre el mundo del deporte y la realidad que viven.

Con este trabajo se puede concluir que actualmente la sociedad está cambiando poco a poco. Para finalizar, la educación actual está dirigida hacia una sociedad basada en la igualdad, sin embargo todavía queda mucho trabajo por hacer.

Palabras clave: Género, deporte, prejuicios, estereotipos, sexismo y jóvenes.

ABSTRACT

This work refers to the differences between men and women in the field of sport. It is obvious that we live in a male-centred society, this it can be seen in the low appearance that women have in the media. As a result, our society is full of stereotypes. Linked to this, comes the discrimination inside and outside the schools, in a conscious or unconscious way. Both the media and the schools like the family and friends play an important role in the struggle for gender equality, so the work is imperative.

A questionnaire was carried out to the students of sixth in Vitoria 's School, after several discussions have been made. With these two tools, information has been collected to analyze it.

Thanks to this, the idea that have children on the sports world and the reality living has become known. With this research it can be concluded that nowadays the society is changing little by little. Finally, today's education it is directed towards a society based on equality. However, there is still much work to do.

Key words: Gender, sport, prejudices, stereotypes, sexism and young people.

AURKIBIDEA

LABURPENA	2
1. SARRERA	6
2. MARKO TEORIKOA	6
2.1 Gizon eta emakumeen arteko diferentziak	7
2.1.1 <i>Diferentzia sozialak, Estereotipoak eta sexismoa gizartean</i>	7
2.1.2 <i>Diferentzia biologikoak</i>	8
2.1.3 <i>Estereotipoak jarduera fisikoan eta kirolean</i>	9
2.2 Sozializazio eremuak	10
2.2.1 <i>Familia</i>	10
2.2.2 <i>Eskola</i>	11
2.2.3 <i>Lagunak</i>	12
2.2.4 <i>Komunikabideak</i>	13
2.3. Eskolako Gorputz Hezkuntza eta eskola kirola. Diskriminazio egoerak	14
2.3.1 <i>Irakasleak Gorputz Heziketako klaseetan</i>	14
2.3.2 <i>Mutilek jasaten al dute diskriminaziorik kirolean?</i>	15
2.3.3 <i>Zergatik neskek uzten duten kirola</i>	15
2.3.4 <i>Gizartean onartutako emakume kirolarien eredia</i>	16
2.3.5 <i>Aisia eta jarduera fisikoari dedikatzen dioten denbora</i>	16
2.3.6 <i>Gurasoen itxaropena</i>	16
2.4 Emakumearen agerpena kirolean eta komunikabideetan	17
2.4.1 <i>Olinpiaden inguruko historia</i>	17
2.4.2 <i>Gizon eta emakumeen kirolak daude?</i>	18
2.4.3 <i>Zergatik ez kirol mistoak</i>	199
2.4.4 <i>Gaur egun Emakume kirolarien agerpena prentsan</i>	20
3. HELBURUAK	21
4. METODOA	21
4.1 Lanaren antolaketa	22

4.2 Landa lana	23
4.2.1 <i>Testuingurua</i>	23
4.2.2 <i>Diseinua</i>	23
4.2.3 <i>Partaideak</i>	25
4.2.4 <i>Informazioa jasotzeko erabilitako tresnak</i>	25
4.2.5 <i>Jasotako informazioa tratatzeko prozesua</i>	25
5. EMAITZAK	26
5.1 Estereotipoak	27
5.1.1 <i>Kirol sexuatuak</i>	27
5.1.2 <i>Berdintasuna</i>	30
5.1.3 <i>Aurreiritzi sexistak</i>	30
5.2 Komunikabideak	31
5.2.1 <i>Generoen arteko ezberdintasunak</i>	31
5.3 Kirol praktika	32
5.3.1 <i>Diskriminazioa</i>	32
5.3.2 <i>Berdintasuna</i>	32
5.3.3 <i>Aurreiritziak</i>	33
5.3.4 <i>Kirol mistoa</i>	33
5.3.5 <i>Sozializazioa</i>	34
6. ONDORIOAK	34
7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK	36
8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	38
9. ERANSKINAK	41

1. SARRERA

Gizartean, gizon eta emakumeon arteko bereizketa bat egiten dela nabaria da. Txiki txikitatik hainbat rol ikasten dira, genero bakoitzari dagokion hori zein den irakasten digute, familia, komunikabide eta ikastetxeetan. Kirolari dagokionez, esaten da badaudela hainbat kirol gizonezkoenak edo emakumezkoenak direnak. Ni txikitatik futbolearen ibiltzen naiz eta emakumea izanda, gizonezko futbolarien aldean ezberdintasun handiak daudela ikusi ditut; komunikabideetako agerpen eza, ematen zaion garrantzi gutxi, bigarren mailan uzteko ohitura... Horrez gain, hainbat egoera deseroso bizi izan ditut, estereotipo edo esaldi sexistengatik. Hori dela eta, lan hau egin behar nuela jakin nuenetik, emakumeen eta kirolaren inguruko lana egingo nuela argi nuen.

Egun, gauzak aldatzen doazela badirudi ere, lan asko egin behar da oraindik, sexismo, diskriminazio, estereotipo eta abarrez josiak baikalde. Horretarako, norbanako bakoitza errealitatearen kontziente izan behar da eta familia, komunikabide eta eskola bezalako eragileen lana ezinbestekoa da. Azken honek eragin handia izan dezake haurrak berdintasunezko pentsamenduez hezteko orduan, gazteek egunean hainbat ordu pasatzen baitute eskolan. Beraz, hau eragile garrantzitsu bat dela kontuan hartuta, lan honen bitartez gaur egungo gazteak nola dauden hezita jakin nahi izan nuen, estereotipoak badituzten, bi generoen inguruan zer uste duten, generoarengatik diskriminaziorik badagoen...

Hau esanda, ondorengo lerroetan aurretik aipatutako ideiak eta horiekin erlazionatutako beste hainbat agertuko dira. Lanaren lehenengo atalean, marko teorikoa dago, honako gai hauek jorratuz: generoen arteko ezberdintasunak, sozializazio eremuak eta horien eragina, eskolako Gorputz Hezkuntza eta kirol eskola, eta orain dela urte batzuk eta egun emakumeek komunikabideetan duten agerpena zein den. Bigarren atala metodoari dagokionez, bertan, lanaren antolaketa zein izan den, helburuak eta landa lana azalduko dira. Hirugarren atalean, emaitzak zeintzuk izan diren adieraziko dira hainbat kategoriatan sailkatuz. Laugarren atalean, ondorioetan, emaitzak marko teorikoko ideiekin lotuko dira. Azkenik, bosgarren atalean hobetzeko proposamenak azalduko dira, lana berriro egin beharko banu aldatuko nituzkeen alderdiekin.

2. MARKO TEORIKOA

Lan honetan, gizon eta emakumeen arteko *diferentzien inguruan* hitz egingo da. Bertan, *diferentzia sozialak*, *biologikoak* eta *estereotipoak* aipatuko dira. Honen ostean, sozializazio eremuen inguruan hitz egingo da. Jarraian, eskolako Gorputz Hezkuntza eta eskola kirolaren inguruko ideiak agertuko dira, Gorputz Heziketako irakasleak, mutilek jasaten duten diskriminazioa eta emakumeek kirola uzteko zergatiak. Azkenik, emakumeen agerpena, bai

kirolean eta baita komunikabideetan ere. Azken puntu hau, Olinpiaden inguruko historiaren, gizon eta emakumeen kirolen, kirol mistoen eta gaur egungo emakumeek kirolean eta komunikabideetan duten agerpenaren inguruko ideiekin dago osatuta.

2.1 Gizon eta emakumeen arteko diferentziak

Gizarteak emakume eta gizonezkoen arteko bereizketa bat egiten du, genero bakoitzeko pertsonen ekintza ezberdinak ezarriz, beti ere gizonezkoak emakumezkoak baino botere gehiago izanik. Hori horrela, gizarteak sorturiko emakumeen eta gizonezkoen ekintzak bideratzen dituzten eskemak daude. Horiek egotean, genero bakoitzari ezarritako hainbat estereotipo sortzen dira (Peña eta Rodríguez, 2002).

Horrekin lotuta, ondorengo lerroetan, generoen arteko ezberdintasunak eta sozializazio eremu ezberdinen inguruan hitz egingo da.

2.1.1 Diferentzia sozialak, Estereotipoak eta sexismoa gizartean

Gizakiek sexuen arteko ezberdintasunen inguruan jasaten dituzten jarrera ezberdin eta hierarkikoei, sexismoa deritze. Esaterako, lantokietan femeninoak edo maskulinoak bezala izendatutako funtzioak. Sexismoa, gizarte patriarkal batetik eratorritako kultura-eredua da. Egun, mendebaldeko lege ia guztiak sexismoaren kontrakoak dira, demokrazia, pertsona guztiak berdintasunean tratatu eta aukera berdina izatean oinarritzen baita. Hala ere, kulturetan diskriminazio sexistak egoten jarraitzen dute. Sexismoa gizaki guztientzat negatiboa da, pertsonen aukera eta jarrerak mugatzen baitute. Egun, neska edo mutila izateagatik jarrera espezifiko eta ezberdina izan behar dela adierazten duten esaldiak entzuten dira oraindik, esaterako: “Mutilek ez dute negarrik egiten” edo “neskek ez dute horrela hitz egin behar” (Subirats, 1994, 61. or.).

Beraz, gizarte baztertzailerik hau sexista dela esan daiteke, pertsonen artekoa, instituzionalizatua eta barneratutakoa, hain zuzen ere. Egoera sexista horiek “naturalizat” jotzen ditugula esan daiteke, barneratuak baititugu. Androzentrismoa oinarri duen gizarte patriarkalean bizi gara, gizonezkoak emakumezkoen gainetik jartzen baitira. Kulturak, albisteen tratuak eta abar aztertzean, androzentrikoak eta sexistak direla jakin daiteke, “gehiago interesatzen” dutelako. Horiez gain, gizarte heterosexual batean ere bizi gara, homosexualitatearen eta bisexualitatearen gainetik jartzen baita. Beraz, gizarte sexista, patriarkal eta heterosexual batean bizi gara, gizarte osatzen dugun gizon zein emakumeak horren “biktima” eta “konplize” izanik (Pellicer, 2009).

Idea horiek aldatu nahi badira, Pellicer-ek (2009: 36. or.) ondo aipatzen duen bezala:

“Lehen kasuan, ereduak aldatu nahi dituen pertsona sentsibilizatu bakoitzak bere jarrera, sinesmen eta jokabide sexista eta androzentrikoak berrikusi behar ditu, hau da, bere curriculum ezkutua aztertu behar du. Bigarren kasuan, talde-mailan, sexu, genero eta kultura aniztasuna onartzen duen gizartea eratu behar da. Horretarako, borroka feministen babes kolektiboa sustatu behar da; gay, lesbiana eta transexualen eskubideak defendatu behar dira; eta gizontasun-eredu berria eratu behar da (“gizonaeraren” eredu berria), besteak beste” eta “Hezkuntza ez-sexista sustatu beharra dago eta hezkuntza-esparru formala zein ez-formaleko gizarte-eragile guztiak sentsibilizatu eta prestatu egin behar dira”.

Gizartean errealitate hori egotean, hainbat arlo ezberdinetara ideia hori transmititzen da. Kirolari dagokionez, historian zehar, aurrera eramandako jarraibideek androzentrismoari indarra eman dietela esan daiteke, hau da, gizona erdian kokatu dute. Hori horrela, emakumeak baztertuak izan dira eta ondorioz, egoera sexista eta beraien gorputzaren inguruko estereotipoak sortu dira (Rodríguez, Martínez eta Mateos, 2004).

Urteak aurrera joan ahala, gauzak poliki-poliki aldatzen doaz. Gaur egungo emakume kirolariek, emakumeen itxura fisiko, kiroleko gaitasun eta parte-hartzearen aurrean dauden oztopo sexista eta ideia negatiboei aurre egiteko gaitasuna dutela adierazi dute, kirolean izan duten parte-hartze handiaren bitartez. Hala eta guztiz ere, emakumeen estereotipo tradizionalak nabarmentzen eta eragina izaten jarraitzen dute (Sagarzazu eta Lallana, 2012).

2.1.2 Diferentzia biologikoak

Genero ikasketek eta determinismo biologikoak kontrako ideiak dituzte. Azken honek, gizakia geneez baldintzatuta dagoela dio, hau da, gene horien arabera subjektua maskulino edo femenino dela. Genero ikasketak, aldiz, sexuaz hartago doa, ikaskuntza baten emaitza dela esanez (Vilodre, 2008).

Errealitateko datuei objektibotasunez erreparatuz gero, emakumeak eta gizonezkoak alderatzean, sexuen arteko ezberdintasun biologikoak ez direla horren handiak ikus daiteke. Gizakiak biologikoki bi sexu ezberdinetan bereizten dira, emeak eta arrak, 46 kromosomen osaera dela eta. 46 kromosoma horiek 23-ko bi multzotan banatzen dira. Emeen kromosoma pareak berdin-berdinak (XX) dira eta arretan, emeetan agertzen ez den kromosoma dago, XY pare osatuz. Ezberdintasun hori dela eta, bi sexuen arteko ezberdintasun biologikoak nabarmendu daitezke. Malgutasunari eta arintasunari dagokionez, orokorrean, emakumeek gizonezkoek baino malgutasun gehiago dute, estrogeno gehiago, gantz-ehunaren ehuneko altuagoa, masa muskular gutxiago eta azkenik, relaxinaren ekoizpen gehiago dela eta. Gizonezkoak berriz, hobeak izaten dira abiaduran, erresistentzian eta indarrean (Ramos, González eta Mora, 2007). Baina, diferentzia intersexualak hauek baino handiagoak dira oraindik.

Nesken garapena mutilena baino goiztiarragoa da. Hori dela eta, neskek nerabezaroan mutilek baino indar fisiko handiagoa dute. Gizonezko helduetan, aldiz, gutxi

gora-behera emakumeek baino %10 muskulu eta proportzioan zuntz muskular gehiago dute. Horren ondorioz, orokorrean, erresistentzia fisiko gehiago dutela esan daiteke. Baina, eraginkortasun mekaniko berdina da gizon eta emakumeentzat (García eta Guerra, 2001).

Emakumeei jarritako estereotipoak, gizonezkoak baino ahulagoak, potentzia gutxiagokoak eta lirainagoak direnaren ezaugarriek daude osatuta. Baina, estereotipo horiek ez dira zuzenak, hainbat eta hainbat gizon eta emakume ezberdin baitaude munduan. Gainera, sexu berdinen artean ezberdintasun handiagoak eta nabarmenagoak daude sexu ezberdinen artean baino (Scraton, 1995).

Kirol eta gorputz jardunek gizon edo emakume izatea definitzen duela diote biologizistek. Gizonei, abentura, potentzia, erronka eta indarra. Emakumei, aldiz, neurridun abentura, kontrolatutako potentzia, neurtutako indarra eta erronka arina. Gainera, badirudi emakumeek kirola praktikatzean oinarri femeninoa ezin dutela galdu. Anatomiaren arabera, subjektu bakoitzak jarrera eta jokaera ezberdin bat izan behar du (Vilodre, 2008).

Kirol trebetasuna eta gaitasun fisikoak ez dira berezkoak, entrenamenduen bidez lantzen dira, bai gizon edo emakumezkoen dagokionez. Nahiz eta hori horrela izan, egun, emakumeen gutxiagotasun biologikoa presente dago, esfortzu fisiko handia eskatzen ez duten kirolean (Vilodre, 2008).

2.1.3 Estereotipoak jarduera fisikoan eta kirolean

Jaiotzen garen momentutik emakumezkoen eta gizonezkoen bereizketa egiten da, genero batekoa edo bestekoa izanik zeregin ezberdinak banatzen direlako. Helduek haurrei modu ezberdinetan tratatzen diete neska edo mutila izateagatik. Esaterako, janzteko edo ilea mozteko moduak bezalako ikus-ezaugarriengatik, haurrek generoak bereizteko gaitasuna dute jaiotzen direnetik eta beraiek badakite zer suposatzen duen neska izatea edo mutila izatea (García eta Guerra, 2001). Hori dela eta, aurreiritzi eta estereotipo sexista ugariaren artean bizi gara.

Estereotipoak, gizarteak sexu bakoitzari atxikitzen dizkion ezaugarriak dira eta batzuetan usteak baino ez dira. Honekin lotuta, *habitus* maskulinoak eta femeninoak daude gizartean, hau da, nesken eta mutilen ekintzak bideratzen dituzten eskemak (Peña eta Rodríguez, 2002). Mendebaldeko gizarteko gizon eta emakumeen estereotipoen dagokienez, gizona agintzen duena eta emakumea horri kasu egiten dion horretan dago oinarrituta; gizona aktiboa emakume pasiboa, gizona adimentsua emakumea sentsiblea, gizona indartsua emakumea ahula eta abar. Hori dela eta, emakumei “femenino” bezala estereotipatu zaie eta liraintasuna, portaera egokia eta mugimendu kontrolatuak, ezaugarri “femeninoak” bezala identifikatzen dira. Gainera, ideia “femeninoak” oinarri bezala hartuta garatu ziren nesken kirolak, esaterako, hockey-a; stick-aren kontrol zurruna eta bere arauak

espazioko mugimendua zuzentzen dute. Gimnasia, patinaje artistikoa eta igeriketa sinkronizatua ere, besteak beste, estetikotasuna erakusten duten jarduerak direnez, “emakumeen” kirolak bezala identifikatuak izan dira. Aldiz, agresibitatea, nekea, lehiakortasuna... erakusten duten kirolak, “gizonen” kirolak bezala izendatu dira. Emakumeak kirol munduan bigarren plano batean egotean, kirola gizonezkoentzat dela dirudi. Hala, emakumeek “gizonezkoen ezaugarriak” erakusten dituztenean, hau da, esaterako, agresiboak izatean, pisu handiak altxatzean edo kiroletan parte hartu edo lehiatzerakoan, beraien genero identitatara, orientazio sexuala, balioak eta rol sozialak zalantzan jartzen dira askotan. Gainera, “maskulinoak” bezala izendatuak izan dira denbora askoan. Egun, gero eta emakume gehiago ikusten dira “femenino” ezaugarri horiek betetzen ez dituztenak (Prat, Soler eta Carbonero, 2012; Sagarzazu eta Lallana, 2012; Scraton, 1995).

Poliki-poliki aurrera egin arren, gizartean oraindik kirolen gaineko estereotipoak daude. Esaterako, Susanna Soler-ek (2010) 1998-an bere bizitzako partidurik onenetariko bat jolastu ostean, honela zoriondu ziotela aipatzen du: “¡Felicidades! ¡Has jugado como un hombre!”. Horren aurrean, Susannak galdera interesgarri bat planteatu zuen: Zergatik jolastu behar da “gizon bat bezala” ondo jolasteko?

Kirolean ematen den genero ezberdintasuna, gizartean dagoen androzentrismoarengandik etor daiteke. Genero ezberdintasun honekin bizi garen arren, egunero-egunero fisikoki aktiboak diren emakume kirolari, entrenatzaile edo bestelako jardueretan parte hartzen dutenek, erronka hori gainditzeko eta ezarrita dauden estereotipo femeninoei aurre egiteko lana egiten dute (Sagarzazu eta Lallana, 2012).

2.2 Sozializazio eremuak:

Bizitzan zehar estereotipoak ikasten dira, emakumezkoa eta gizonezkoa izaten ikasten da. Lan hori hainbat eragilek errazten dute: familia, eskola, lagunak eta komunikabideak.

2.2.1 Familia

Kultura transmititzearen prozesuan, familia da lehenengo eragilea. Prozesu horretan, familia da haurrei gizarteko arauak, jarraibideak eta baloreak transmititzeko arduraduna. Nahiz eta familiak beraien seme-alaben gizarteratze garapen guztia ezin duten zehaztu, bertatik jasotzen dira jarrera, interes, helburu eta sinesmenak (Villarroel eta Sánchez, 2002).

Familia, testuinguru hezigarri, sozializatzaile eta baloreen igorle garrantzitsuenetariko bat da. Seme-alabek, gaztaroan, familiarekiko harreman afektiboa adierazten dute, baina, nerabezaroan “krisi” aro batean sartzen dira eta gurasoekin duten erlazioa aldatu egiten da. Hala eta guztiz ere, guraso eta seme-alaben arteko atxikimendu egokiak, nerabearen

ongizatea erraztuko du. Aro horretan, gurasoak beraien seme-alaben kontrola izaten saiatzen badira, arazoak sortzeko aukerak daude. Aldiz, independentzia lortzen laguntzen badiete, beraien arazoak izateko aukera oso txikia da (Montañés, Bartolomé, Montañés eta Parra, 2008).

Neska eta mutilak txiki-txikiak direnetik, familia eta inguruko pertsonengandik, hainbat gauzen inguruan bestelako interpretazioak jasotzen dituzte haurra sexu batekoa edo bestekoa baldin bada; arropa ezberdinak, oparitutako jostailuak edo beraien burua deskribatzeko hitz ezberdinak. Horrez gain, familiek, jarduera ezberdinak agintzen dizkiete neska eta mutilei. Neskei, etxeko lanak eta besteen zainketara bideratzen zaie, mutilei, lehiakortasuneko jardueretara bideratzen zaien bitartean. Hori horrela, oso txikitatik hurrek mezu estereotipatu horiek jasotzen dituzte. Familiek, gizarteak espero duen eginkizunak banatzen dizkie genero bakoitzari. Poliki-poliki egoera aldatzen doa, baloreetan aldaketak egon baitira, baina, komunikazio sareek, aurretiko belaunaldiek eta gizartea berak oraindik ere, familia patriarkalaren balore batzuk mantentzen ditu. Gazteek, familietatik hartzen dituztenez jarraibide kulturalak eta heziketa ereduak, neska eta mutilek kirol bat edo bestean jarduteko orduan familiak eragin handia du. Familiek, kirolari dagokionez, haurrengan jartzen duten jarrera eta itxaropena sexuen arabera ezberdina da. Neskak etorkizunean kirolek ezingo direla bizi uste dutenez, beraiengan itxaropen gutxiago dute, mutikoengan hori gertatzen ez den bitartean (Vizcarra, Macazaga eta Rekalde, 2009; Herrera, 2000).

2.2.2 Eskola

Haurrek ikastetxean ordu asko pasatzen dutenez, eskolak ardura garrantzitsua du neska eta mutilen ikaskuntza sozialean. Durkheim-ek (in De Paz, 2004) esaten zuen bezala hezkuntza praktikak instituzio sozialak dira, hau da, momentu konkretu bateko gizarte sistemarekin lotuta daudela. Gizarte bakoitzak, momentuko behar sozialak eta bere hezkuntza helburuak sortzen ditu. Eskolak, familiekin, komunikazio sarrekin eta informazio eta komunikazio teknologia berriekin batera, beste hainbaten artean, partekatzen ditu funtzioak.

Garai bateko bereizitako eskola tradizionalan, Gorputz Hezkuntzako klaseetan, mutilei gizentasuna lortzeko heziketa ematen zitzairen eta neskei soinketa erritmiko bat egiteko eskatzen zitzairen. Eskolan, gizona izatea garrantzitsua izatea dela eta emakumea izatea gutxiago izatea dela ikasten zuten. Ingalaterran hezkuntza mistoa hasi zenean, neskak eta mutilak bereizita egoten ziren Gorputz Hezkuntzan. Bereizketa hori, biologiak ezarritako ezberdintasunengatik zela justifikatzen zen. Aurrerago, Gorputz Hezkuntzako klaseak ere mistoak izatera pasa ziren, irakaskuntzan aukera berdintasun osoa lortzeko, curriculumeko arlo guztietan berdintasun bat eskaini zen. Baina, neskei mutilenak ziren jarduera fisikoak egitera estimulatzeko zitzairen, potroa saltatzea edo futboleko aritza,

esaterako, eskola mistoetan neska eta mutilen artean ezberdintasunik ez zela egon behar argudiatuz. Eredu maskulino horren aurrean, emakumeek gutxitan ikusi dute baloratuta beraien mundua. Egun, Gorputz Hezkuntzako profesionalak gero eta gehiago arduratzen dira, sexua kontuan hartu gabe, norbanako bakoitzaren ezaugarri eta aukera pertsonalak garatzea ahalbidetzen duen programa bat eskaintzeaz. Baina, oraindik ere, mutikoei “maskulinitasunari dagokion” lorpenengatik juzgatu eta emakumeei, aldiz, “maskulinitasun” horren aurrean juzgaten zaien errealitate batean bizi gara (Vizcarra, Macazaga eta Rekalde, 2009).

Hezkuntzan agertzen diren elementu sexistak, curriculum esplizituan eta ezkutuan egoten dira. Curriculum esplizituan, esaterako, baliabide didaktikoak daude; abestiak, jokoak, filmak, horma-irudiak eta ipuinak. Curriculum ezkutuan, aldiz, hezkuntza eta jolas arloko esparruen banaketa adibidez; ikasgeletan banatutako taldeak eta talde-lanak, gizon eta emakumeentzako espazioaren ehunekoa, patioa nola dagoen antolatua, zer nolako jarduerak egiten diren klaseetan zer nolako planteamendu pedagogikoarekin... (Pellicer, 2009). Horrez gain, Michelle Barret-ek (in Itatí, 1995) irakasleek ikasleenganako itzaropena sexuen artean ezberdintzen dela dio eta hortik abiatuz, irakasleek jarduera aurrera eramaterako orduan jokaera bat edo beste izaten dutela.

Irakasleek neska eta mutilengan duten itzaropena, “feminitatearen” ideia inguruan sortzen dira. Honek, trebetasun eta gaitasun fisikoen eta sexuen inguruko hainbat ideia sortzen ditu, besteak beste. Irakasleek ideia horiek izatean, praktikan zehar ideia horiek eragina dute, jarduerak aukeratzean, klasea antolatzean eta ikasle-irakasleen arteko interakzioan. Hori horrela, Gorputz Hezkuntzako irakasleak sozializazioa parte izatean, generoen inguruko mezu okerrak transmititzen diete (Scraton, 1995).

2.2.3 Lagunak

Berdinen arteko taldeak, eskolan hasi baino lehen, sozializazio eragile bezala jokatzeko du. Eskolan, talde hauek, etxean eta eskolan ikasitako ideiak, baloreak, jarrerak, jokaerak eta gaitasunak indartu egingo dituzte edo hauen kontra joango dira. Kirola praktikatzeko estimulua familian sortzen da, baina, berdinen arteko taldeek nabarmen eragiten dute. Azken hauek, kiroleko parte hartzea indartu edo urrunduz dezakete eta kirola praktikatzeko lagunak egitea ahalbidetu dezake. Gaztaroan, sexu, ezaugarri pertsonal, adin... antzekoak duten lagunak eragin handia dute kiroleko parte-hartzean eta haurraren motibazioan. Batez ere, gaztaroan eta nerabezaro hasieran, sexu berdineko kide baten eragina da nagusi, mutilen artean bereziki. Emakumezko atleta askok aldiz, hasieratik eta gaztaroaren erdialderaino, mutilek menderatutako talde baten parte izan zirenen berri ematen dute. Jarduera fisikoak praktikatzeko haurrari rol bat hartzeko aukera ematen dio eta lagunak betetzen dituzten

beste rol horietaz ikasteko. Lagunek, familiak baino eragin handia izaten dute jarduera fisikoa praktikatzerako orduan eta eragin hau handiagoa da nerabezaroan (Carratalá, García eta Carratalá, 2003).

Hautzaro eta nerabezaroan lagunartea erreferentea denez, horiek esaten duten guztiak garrantzi handia du. Hori horrela, esan bezala, kirol bat edo jarduera fisiko bat aukeratzeko orduan lagunek eragin handia izaten dute. Gazteek, kirolen estereotipoak dituzte, hau da, “emakumeen kirolak” eta “gizonezkoen kirolak” daudela uste dute. Estereotipo horiek, kirol bat edo beste praktikatzen duten gehiengoa neskak edo mutilak direlako da. Hau da, esaterako, futbola praktikatzen duten gehiengoa mutilak direnez, futbola “mutilen kirola” dela uste dute. Baieztapen horien ondorioz, emakumeen kirol jarduna baldintzatu egiten da (Vizcarra, Macazaga eta Rekalde, 2009). Horrez gain, Espainiako emakumezkoek igeriketa, aerobic, gimnasia erritmikoa, dantza eta mantentzeko gimnasia nahiago izatean, feminitatearen patroi tradizionalak erreproduzitu egiten dira (Puig eta Soler, 2000). Baina, esan beharra dago, gero eta emakume eta gizonezko gehiago ikusten direla nagusi diren maskulino eta femeninoaren modeloetatik at (Prat, Soler eta Carbonero, 2012).

Hori horrela, Gonzalez, Salguero, Tuero eta Márquez-ek (in Vizcarra, Macazaga eta Rekalde, 2009) aipatzen dute, GH-ko klaseetan ikasleek beste sexuko kiroltzat hartzen den hori ez dutela praktikatu nahi izaten, hau da, mutilek ez dutela nahi dantza egitea eta neskek ez dutela futboleko jolastu nahi. Hala eta guztiz ere, neskak “mutilen jardunak” bezala kontsideratutakoetan hobeto moldatzen dira, mutilak “neskenetan” baino.

2.2.4 Komunikabideak

Komunikabideek eta iragarkiek hainbat estereotipo transmititzen dituzte, askotan, gizakiok horren kontziente izan gabe. Horrek, aukeratzeko askatasuna izatera mugatzen gaitu. Kirol albisteak jarrera sexista eta androzentrista dutenez, kirola praktikatzerako orduan eragina izaten du, komunikabideek ondorengo hauetan laguntzen baitute: sexuaren arabera trebetasun mota ezberdinak bereizten direnaren ideia indartzen, neskatoei zaintzearen eta mutikoei lehiakortasun irudia sartzen, mutilek emakumeak beraien karguan dutela, mutikoetan oldarkortasun jarrera onartzen den bitartean neskatoetan kritikatu egiten dela eta abar. Beraz, guzti honek, berdintasunari ez dio bat ere mesederik egiten, hau da, gizabanako bakoitza emakume eta gizonezkoen jarrirako rol, balio eta jarrerak kontuan izan gabe hezteari egiten dio kalte. Espainiako albisteen zati handiena kirola eta politikarena da, ingurugiroak, osasunak, zientziak eta kontsumoak ez dute interesatzen. Gainera, kirolari dagokionez, gizonezkoen praktikatuak futbola, kirol espektakuloa, informazio zentroa da. Komunikabideek hori sustatzean, kirola praktikatzera bultzatu baino gehiago, ikusle kopurua

handitzen du. Emakumeen lorpenek aldiz, ez dutela interesatzen esaten da (Latorre et al., 2007; Vizcarra, Macazaga eta Rekalde 2009).

Gizonezkoen lehia falta diren kiroletan, esaterako, igeriketa sinkronizatuan eta gimnasia erritmikoan, emakume kirolarienganako arreta, tratua eta komunikabideetako agerpena, bi sexuek praktikatzen duten kirolean baino handiagoa eta hobetoagoa izatea eragiten du (Sagarzazu eta Lallana, 2012).

2.3. Eskolako Gorputz Hezkuntza eta eskola kirola. Diskriminazio egoerak.

Jarduera fisikoa eta kirola sozializatzeko baliabide garrantzitsuak dira eta autoestimua eraikitzen laguntzen dute. Kirola praktikatzen duten neska gazte eta emakumeak indartu egiten dira eta gizarteko paper tradizionaletatik irtetea lortzen dute, irabazten, ondo pasatzen eta arrakasta izaten ikasiz. Lehenengo kiroleko sozializazio honetan, hezitzaileek, berdintasunean oinarritutako baterako hezkuntza indartu behar dute. Mutikoek gehiengoek praktikatzen duten kirola praktikatzeko joera dute, jaso dezaketen txantxen beldurrarengatik. Hori dela eta, “emakumeen kirola” bezala izendatutako kirolei uko egiten die, esaterako, patinaje artistikoari eta gimnasia erritmikoari. Modu honetan, estereotipoek indar gehiago hartzen dute (Sagarzazu eta Lallana, 2012).

2.3.1 Irakasleak Gorputz Heziketako klaseetan

Hainbat ikerketek feedback-ak duen garrantzia eta GH-ko ikasleengan duen eragina frogatu dute. Feedback-a, aurretiko emaitzak lortzeko ikasleari emandako informazioa dela esan daiteke, jokaera egokiak errepikatzen laguntzeko eta okerrak baztertzeko (Ramos eta Videra, 2011: 15. or.).

Ikerketen arabera, irakasleek, mutikoekin neskatoekin baino interakzionatzeko joera handiagoa dute. Gainera, mutikoek irakasleengan arreta eta errefortzu gehiago jasaten dute. Hori gutxi balitz, sexuaren arabera irakasleek feedback ezberdinak ematen dituzte. Feedback afektiboari dagokionez, mutikoak beraien errendimendu onarengatik eta neskatoak esfortzuengatik jasotzen dute irakaslearen feedback-a. Ikerketako ondorioen artean, feedback-ak motrizitate gaitasunen ikaskuntzan eragina izateaz gain, jokaeren garapenean eta sexuen arteko aukera berdintasuna bezalako balore moraletan eragiten duela aipatzen dute (Ramos eta Videra, 2011).

2.3.2 Mutilek jasaten al dute diskriminaziorik kirolean?

Kirolean gertatzen diren diskriminazioei dagokionez, gaur egun gizonezkoek ere diskriminazioak jasaten dituzte, emakumeek baino gutxiago, baina, horren biktimak dira beraiek ere. Adibide argienetariko bat igeriketa sinkronizatuarena da. Igeriketa Sinkronizatuaren Federazio Mundialaren arabera, gizonezkoak kirol ekitaldietan ez ofizial bezala parte hartzeko aukera izango dute, aldiz, ekitaldi ofizialetan emakumeek bakarrik parte har dezakete. Baina, hau ez da kasu bakarra, gizonezkoek ere beraiei dagokien estereotipoa betetzen ez dutenean ez daude ondo ikusiak, emakumeei gertatzen zaien bezala. Hori horrela, norbanako bakoitzak nahi duen kirola aukeratzeko aukera izan beharko luke, inolako diskriminaziorik egon gabe. Nazioarteko Olinpiar Batzordeak olinpiar kirolen praktika ahalbidetzeaz arduratu behar da. Mutiko batek igeriketa sinkronizatua edo neskato batek boxeoan lehiatu nahi badu, Nazioarteko Olinpiar Batzordeak horien inguruko oztopoak ezabatu beharko lituzke poliki poliki, pertika saltoarekin egin duen bezala, esaterako. Nazioarteko Olinpiar Batzordeak ezin du kirolaren bitartez kultura bat aldatu, baina, kirola tresna baliotsua izan daiteke, esaterako, emakume musulmanek berdintasuneko gizartean integratu eta parte hartzeko (Sagarzazu eta Lallana, 2012).

2.3.3 Zergatik neskek uzten duten kirola

12-15 urte bitarteko neska gazteek kirolaren praktika uztearen hainbat arrazoi ematen dituzte. Hainbatek, ikasteko denbora beharraren aitzakia hartzen dute. Beste arrazoi bat, taldea ez osatzearena da eta azken bat aipatzeko, irabazteko helburu nagusiarekin bat ez etortzea da. Asteko entrenamenduak gustuko dituztela aipatzen dute, baina, asteburutako partidua jokatzeko ez, goiz jaiki beharra eta denbora libre murrizten duelako. 16-18 urte bitarteko neska gazteei dagokienez, 12-15 urteko gazteek bezala, denboraren aitzakia jartzen dute. Hauek, denborarik ez dutela esaten dute, baina, “zerbait egiteko” beharra ere sentitzen dute. Hori dela eta, aerobic, arrauna, piraguismoa edo umeak entrenatzera dedikatzen dute denbora. Beraz, denbora ez da faktore nagusia, zerbait egiteko behar hori asetzeko denbora behar baita. Beste arrazoi bat, kirola egitearen eta emaitzak eskatzearena da, aurrera egin ahala presioa handitzen dela eta ez dela gozatzen aipatzen dute. Azkenik, badago kirol praktika ukatzea eragiten duen ideia; “oso onak direnak” kirolean jarraitzen dutela eta gainontzekoak hortik kanpo geratzen direla ustea, hain zuen ere (Diez eta Guisasola, 2002).

Aipatutako arrazoiak eta adin tarteak alde batean utziz, badaude aipatu beharreko beste alderdi batzuk emakumeen jardura motorra mugatu eta horien ondorioz praktika uztea eragiten dutenak. Eragile horien artean, bikotekidearen iritziak edo arrakastak

harremanean arazoak ekar dezakeen beldurra, porrotari dioten beldurra edo eraso sexistak jasotzeko beldurra ere izan daiteke, besteak beste (Fontecha, 2006).

2.3.4 Gizartean onartutako emakume kirolarien eredia

Askotan emakumezkoek “gizonezkoen” kirolak praktikatzeko orduan hainbat irain jaso izan dituzte eta baita alderantziz ere, baina, emakumeek gehiago jasaten dituztela esan daiteke gehiengo kirolak “gizonezkoenak” bezala baitaude izendatuta. Emakumeak jarrera estetiko atseginagoa erakusten duten kirolak praktikatzea errazagoa izaten da, gizartean hobeto ikusia baitago, esaterako, tenisa. Aldiz, sarritan, kontaktua dagoen kirolei uko egin zaie, adibidez, karatea, boxeoa eta errugbia (Fontecha, 2006).

2.3.5 Aisia eta jarduera fisikoari dedikatzen dioten denbora

Denbora falta jarduera fisikoa oztokatzen duen beste eragile bat da. Neskek txikitatik mutilek baino denbora libre gutxiago izaten dute, etxeko lanetan lagundu behar dutelako, anai-arreba txikiagoak zaindu behar dituztelako... Lehen sozializazioan emakumeen besteen beharrak ase behar dituztela irakatsi izan zaienez, helduak egiten direnean aisiarako denborarik ez dute izaten. Beraz, emakumeek gizonezkoek baino aisialdi denbora gutxiago izaten dute (Fontecha, 2006).

2.3.6 Gurasoen itzaropena

Gure gizartean, baliteke, gizonezkoen genero rola indartzaileenetariko bat kirol instituzioa izatea. Familian kirol praktikaren eta praktikatzeko duen horren generoaren inguruko hainbat estereotipo egoten dira. Haurrak txikiak direnean, kirola berdintasuneko jardura bat bezala ikusten dute, baina, helduek pentsamendu horiek indargabetzen dituzte. Gurasoak, beraien seme-alabek jardura fisiko egokiaz praktikatzeaz arduratzen dira txikitatik, genero bakoitzari dagokion jardura praktikatzea ziurtatuz. Horrela, hurrei zer den egokia eta zer ez esaten diete. Hala, esan daiteke, gurasoek beraien seme-alabei modu ezberdinetan tratatzen dietela generoaren arabera. Beraien semeekin jolastean (irakasleek bezala), fisikoki aktiboak diren jolasetara jolasten dute. Alabekin, aldiz, ez da horrelakorik gertatzen. Generoen arteko jarrera ezberdinak hartzean, jardura fisikoei dagokienez, neskak diskriminatuak izaten direla esan daiteke, mutikoei aktiboago tratatzen baitzaie. Beraz, genero rola estereotipoek, indar handia hartzen dute haurrak txikiak direnetik. Honek, ondorio kezagarriak dakartza

haurren osasunean. Horren aurrean, familia eta instituzioa dira kirol praktikaren inguruko ideia ez sexista bat sortzeaz arduratu behar direnak (Macías, 1999; González eta Otero, 2005).

Neska gazteek, gurasoek kirol praktika uztea onartzen dutela diote, baina, ondoren beste zerbait egiteko esaten diotela, gustuko baitute beraien alabek ere kirola egitea. Gainera, gurasoek maila handiko lehiaketetan bakarrik daudenean eskatzen dietela emaitzak diote. Honekin lotuta, guraso batzuek ideia hori egia dela ziurtatzen dute, hau da, beraien alabek jarduera fisikoa egiteko animatzen dietela, baina, horri indar gehiegi ere ez dietela ematen. Horrez gain, mutikoei eta neskei kirol praktikaren inguruko tratu ezberdina emateak, hau da, mutilen beti kirola praktikatzeko bultzatzea eta neskei onak direnean bakarrik, eragina duela uste dute gurasoek. Beste batzuek aldiz, gaur egun, neska eta mutilen tratua bera ematen zaiela diote (Díez eta Guisasola, 2002).

Kirol eskaintzari dagokionez, neskei eskainitako kirolak urriak direla diote, eskaintzak mutilen begira daudela eginak. Kirol eskola, mutil kopurua neskena baino handiago adela ere badakite gurasoek. Hori horrela izatearen arrazoia, neskek beste jarduera batzuk (euskal dantzak, aerobic...) aukeratzen dituztelako da eta mutilen aukera bakarra ia kirola dela diote. Honetan, gizarteak eragin handia du, jarduera batzuk neskeentzat egokiagoak ikusita baitaude mutilentzat baino eta alderantziz. Komunikabideetan, gizonezkoen talde kirolei garrantzi eta lehentasun gehiago ematen zaiela ere badiote gurasoek eta emakumeak, kirol indibidualetan (tenisean, mendian...) nabarmentzen direla (Díez eta Guisasola, 2002).

Beraz, esan daiteke, gizartean kirola mutilekin loturiko jarduera bezala ikusita dagoela eta gurasoek horri aurre egiteko modurik egokienean ez dutela jokatzeko. Gurasoek beraien alabek kirola praktikatzekoaren inguruko interes gutxi agertzean, alabek kirolak garrantzi handirik ez duela interpretatzen dute. Hori horrela, gurasoen jarrera aldatzea beharrezkoa da (Díez eta Guisasola, 2002).

2.4 Emakumearen agerpena kirolean eta komunikabideetan

2.4.1 Olinpiaden inguruko historia

Kirola gizonezkoentzat sortu zen, beraz, tradizionalki emakumeak kirolek baztertuak izan dira, beraien genero rolaekin bat ez zetorrelako. Olinpiar Modernoen sortzaitzea izan zen Pierre de Coubertinek (in Latorre et al., 2007, 1. or.), emakumeen kiroleko parte-hartzea ukatu zuen ondorengo hau esanik: "Las mujeres sólo tienen una función en el deporte, coronar al vencedor con las guirnaldas del triunfo".

Hasierako ideia hori atzean utzita, Nazioarteko Olinpiar Batzordeak genero berdintasunaren aldeko aurrerapausoak eman dituela ikus daiteke. Egia da 1896. urtean

Atenasen lehenengo Olinpiar Jokoak ospatu zirenean emakumeen parte hartzea ez zegoela onartuta. Baina lau urte beranduago, Parisen, 1900.urtean emakumeak femeninotzat hartzen ziren bi kiroletan parte hartzeko aukera izan zuten, golfean eta tenisean, hain zuzen ere. Emakumeek, Joko Olinpikoetan parte hartzeko borrokatu zuten, hainbaten artean aipatzekoa da Alice Milliat. Etengabeko borrokari esker, emakumeak mugimendu olinpikoaren eta kirol ezberdinen parte izaten hasi ziren pixkanaka. Bilakaera horren eraginez, arlo sozial, politiko eta kulturalean emakumeen inguruko gaitan esku hartzen hasi ziren, emakumeen eskubideak gizarteko maila guztietan defendatzeko asmoz (Sagarzazu eta Lallana, 2012; Rodríguez, Martínez eta Mateos, 2004).

Nahiz eta emakumeak Joko Olinpikoen parte izan, edizio askotan zehar elementu apaingarriak izan dira. Hala eta guztiz ere, istorioan zehar, emakumea diziplina ezberdinetan sartzen joan da. Egun ere ezberdintasunak ikusten dira, esaterako hesietan, gizonezkoetan 110m dira eta emakumezkoetan 100m (Lallana, 2005).

2.4.2 Gizon eta emakumeen kirolak daude?

Gizarteak gizon eta emakumeen inguruko hainbat estereotipo sortu ditu. Genero bakoitzari esleitutako estereotipoen artean bizitzean, kirol batzuk emakumeentzako eta beste batzuk gizonezkoentzako egokiagoak direnaren inguruko ideia aldatzea zaila da. Hala eta guztiz ere, egun, tradizionalki egindako “gizonezkoen” eta “emakumezkoen” kirol bereizketa ez da hain nabarmena. Emakumeek “gizonen” kirol bezala kontsideratutako kirolak praktikatzearen ondorioz, bi generoen praktika onartzen den jarduerak daude (Alvariñas, Fernández eta López, 2009).

Emakumeek edozein kirol praktikatzeko eskubidea lortu dute, baina hori ez da nahikoa, errekonozimendu sozialaren falta baitago oraindik: kirolarien merituak, kirolarien arteko berdintasuna eta komunikabideen hedapena, beste hainbesteren artean. Horiek dira, hain zuzen ere, emakume kirolarien inguruan garapen motela duten alderdiak. Kirolean generoen arteko berdintasuna egon ez arren, Olinpiar Jokoak generoarekiko bidezkoena den ekitaldia da, nahiz eta salbuespenak minimoak izan kirol probak nahiko orekatuak direlako. Olinpiada guztietatik, idolotzat hartzen diren kirolariak agertzen dira eta gehienetan gizonezkoak izaten dira. Gainera, komunikabideetan haien agerpena izateko izugarrizko errekorrak egin behar izaten dituzte (Sagarzazu eta Lallana 2012).

Nahiz eta nahi den kirola praktikatzeko eskubidea izan, neska eta mutil gazteen artean praktikatzen dituzten jardueren artean bereizketa bat egin daiteke, orokorrean, bi generoek praktikatzen dituzten jarduerak ez baitira berdina; neskek gimnasia eta mutilek futbola eta eskubaloia. Bereizketa honen eragile nagusienetariko bat hurrek jasotako

heziketa dela esan daiteke (Balaguer, 2002). Hori horrela, hezitzaileen lana estereotiporik gabeko haurrak heztea da, norbanako bakoitza aske baita nahi duena egiteko.

2.4.3 Zergatik ez kirol mistoak

Bizkaiko ikastetxe batzuetan egindako ikerketei dagokienez, neskak lehiaketa mistoen aldeko ageri dira. Hauek, mutilen aukera bera izan behar dutela diote, inolako bazterketarik jaso gabe, beraien maila berera iritsi daitezkeelako. Honen inguruko kontzientzia ez badago, aldaketak egitea oso zaila izango da, nahian besterik ez baita geratuko. Ikerketako mutilen zati handia ere, berdintasunaren aldekoa da. Hauek, neska zein mutilek kirol bera egiteko eskubidea dutela eta kirolean batera parte-hartzea positiboa izango litzatekeela diote. Beste neska eta mutil batzuk aldiz, talde mistoen kontrakoak dira eta hauen aitzakia tradizioa da, “emakumeen” eta “gizonezkoen” kirolak daudela eta inoiz ez dela horrela jolastu esaten dute. Beraz, azken hauek, neskek neskekin eta mutilek mutilekin jolastu behar dutela diote. Aurretik aipatu bezala, neska eta mutil batzuen ustetan, eskola kirolean talde mistoetan parte hartu behar dute, baina, goi mailako kirolean banandu egin behar direla diote. Azken hau arrazoitzeko, ezberdintasun biologikoez baliatzen dira, esaterako, neskak mutilak baino txikiagoak direla eta indar gutxiago dutela esanez. (Vizcarra, Macazaga eta Rekalde 2009).

Neskek eta mutilek, 12-14 urtera arte ahalmen eta gaitasun antzekoak dituzte, baina, tradizionalki gizonezkoek praktikatu dituzten kirolak ez daude pentsatuta neska-mutilak nahastuta jolasteko (Vizcarra, Macazaga eta Rekalde 2009). Gainera, argudio kontserbadoreek, lehia mistoa emakumeentzat kaltegarria dela diote bi arrazoi hauengatik: lehenengoak, gizonezkoen giharren eta indar fisikoaren garapena gizonen parean jartzean, feminitatea galtzen dela dio. Bigarrenak, aldiz, gizonen errendimendu bera lortzeko esfortzu fisiko handia egin behar dutela eta horrek atleten osasunean arriskua sortzen dutela dio (Tamburrini, 1999).

Nahiz eta tradizioan hori ikusi, aurten, Lleidako infantilen neska talde batek futboleko liga maskulinoa irabazi dute. Gainera, emaitza oso onak lortu dituzte, 22 partiduetatik bat galdu, bi berdindu eta beste guztiak irabaziz. Horrez gain, taldean gehiengo goleatzailea eta gol gutxien sartu dieten atezaina dute. Mutilen kontra jolasten hasi zirenetik, hainbat jende harrituta utzi izan dute, horien artean aurkari eta epaileak, ez zekitelako nesken talde baten kontra jokatu behar zutela. Horren aurrean, hainbat gauza entzun dituzte. Hala ere, AEM taldeko neskak gogor lehiatu eta emaitza bikainak lortzean, nesken talde batek mutilen talde bati irabazi ahal diola erakutsi dute eta hainbat estereotipo apurtu dituzte (Tronchoni, 2017).

2.4.4 Gaur egun Emakume kirolarien agerpena prentsan

Madrilgo Carlos III Unibertsitatearen (Sainz de Baranda, 2013) ikerketaren arabera, emakumeak kirol prentsaren %5-ean bakarrik agertzen dira, gizonek %92-a baino gehiago betetzen duten bitartean. Gainera, azken urteetan egoera hori ez da hobetu, ikerketa honen arabera, zenbait prentsek atzerapausoa egin dute. Esaterako, ezaguna den Marca egunkarian, 1979. urtean %5,6-ko bat betetzen zuen emakumeen albisteak eta 2010ean, aldiz, %4,22-ra jaitsi zen.

Komunikabideetan emakume kirolarien errepresentazioa gizonezkoena baino askoz ere baxuagoa denez, estereotipo asko sortzen dira. Hori horrela, mutil gazteak neska gazteak baino gehiago identifikatzen dira modelo sozial horiekin. Horrez gain, komunikabideek emakume kirolarien lorpenak gutxietsi eta jendearen interesean eragiten du. Nieves Ucedok (in Sagarzazu eta Lallana, 2012, 2041. or.) ondo azaltzen du ondorengo lerroetan: “las mujeres que hacen deporte parecen invisibles. No están para los medios. No aparecen. No venden. Y si no vendes, no existes. Sólo en tiempo de Olimpiadas es posible seguir el deporte femenino en los medios de comunicación generales, o bien cuando una mujer gana una competición de altísimo nivel”.

Baina, Sagarzazuk eta Lallanak esaten dutena ez da errealitatean gertatzen, eta hala jaso zuen Carmen Diez Mintegik 2007an. Urte horretan, alde batetik, Josune Bereziartu, Edurne Pasaban, Naroa Agirre, Bera Bera taldea, Hondarribiko saskibalo taldea eta Athletic-eko neskak gorenera iritsi ziren. Beste aldetik, gizonezkoek praktikaturako kirol taldeak, Erreala, Athletic eta Alaves-ek, besteak beste, ez zuten arrakastarik izan. Hala eta guztiz ere, Euskadiko komunikabideetan irabazleak ez ziren azken hauen egoeraz arduratu ziren (Alfaro et al., 2011, 16-17. or.).

Zaila da bizitza soziala ulertzea komunikabideei arreta jarri ezean. Kirolaren inguruko komunikabideak gizarteak sortutakoak dira. Beraz, sortu, antolatu eta kontrolatzen duten pertsonak, beraien ideologia, mundu sozial eta esperientzietatik abiatzen dira. Kirol erredakzioetan emakumeak gutxieneko bat izatean eta enpresetan emakumeak kirol informazioaren arduradunen postuetan ez egotean, komunikazio sareak gizonezkoen pentsaerara, sentsibilitatera eta interesetara egituratuta daude. Emakume informatzaileek, erredakzioetan emakume gehiagorekin emakumeek praktikatzen duten kirolaren informazioa aldatu daitekeela uste dute, informazioei zuzentasuna eta errespetua emanez. Hori horrela, komunikabideek ez dute gizartea islatzen, errealitatearen bertsioak irudikatu baizik. Gizarteak, emakumeen kirola komunikabideetan ez agertzearen zergati nagusia ezagutza falta da. Estereotipo tradizionalak eta genero rolen sozializazio bereizgarriak mantentzen diren bitartean, kirolaren testuinguruan jokaeren ezberdintasunak egoten jarraituko dute. Hau guztia aldatu nahi bada, inguruan (familia, ikastetxeak...) lan egin behar da. Inguru handiago

batera zabaldu nahi bada emakumeen eredia kirol munduan, komunikabidea da balio handiko tresna (Sagarzazu eta Lallana, 2012; Comité Olímpico Español, 2007).

Komunikabideetan, familian, ikastetxean, lanean... mezu diskriminatzaile sexistak transmititzen dira. Komunikabideek gizartean duten boterea izugarrikoa da. Komentaristek kirolarien inguruan hitz egiten dutenean, horiei adjektibo baten bitartez definitzeko ahalmena dute, esaterako; “El Dream-Team” (Barça-ri), “El relámpago Bolt”, “El tiburón Phelps” edo “La reina de la velocidad” (Marion Jones). Goitzen hauen erabilera azkar batean zabaltzen dira gizartean. Hori horrela, telebistak kontzientzia gehiago izan beharko luke bertan erabilitako hitzek gizartean duten eraginaren inguruan (Latorre et al. 2007; Sagarzazu eta Lallana, 2012).

3. HELBURUAK

Nahiz eta gizartea poliki-poliki aldatzen doala esaten den, lan honen bitartez errealitatearen berri jakin nahi izan nuen. Hori dela eta, lan honen helburu nagusia, gazteek generoa eta kirolaren inguruko zein ideia duten jakitea da. Horrez gain, zein errealitatean bizi diren jakitea, batez ere, estereotipoek eta sexismoak gazteen artean jarraitzen duten edo ez jakitea. Azkenik, komunikabideen eta inguruko eragina zer nolakoa den kirolari dagokionez.

Aipatutakoez gain, esku-hartzean ikasleekin egindako eztabaidaren bitartez, kirolek ez dutela sexurik eta norbanako bakoitzak nahi duen hori egiteko aske dela argi uztea izan da beste helburu bat. Hala, lan honen helburuak honako hauek izan dira:

- Ikasleek dituzten estereotipoak zeintzuk diren jakitea
- Estereotipatzen gaituzten esaldiak entzuten dituzten edo ez jakitea
- Ikasleen ustez “emakume” eta “gizonezkoen” kirolak dauden edo ez jakitea
- Berdintasunaren inguruko zein ideia duten jakitea
- Ikaskideekin genero eta estereotipoen inguruan hitz egitea
- Errealitatearen kontzientzia izatea

4. METODOA

Kurtso hasieran, marko teorikoaren inguruko ideia orokor bat egiten hasi nintzen. Pixkanaka bidea egiten hasi eta praktiketako denboraldia informazio bilketa bat egiteko momentu eta leku egokia izatean, gazteekin nire Gradu Amaierako Lana osatzeko zerbait interesgarria

egiteko aukera nuela pentsatu nuen. Beraz, praktiken hasierako asteetan galdeketa eta eztabaida bat egitea pentsatu nuen, gainontzeko asteetan beste zerbait gehitu behar banuen denbora izateko.

4.1 Lanaren antolaketa

Lan honen prozesua kurtso osokoa izan da, irailaren hasiera aldean tutore eta beste kideekin geratu nintzenetik Ekainaren 2an entregatu arte, hain zuzen ere. 1.taulan, prozesu horretan zehar egindako zereginak agertzen dira:

1. taula. Gral-a egiteko zereginak

DATA	ZEREGINA
2016/09/19	Bilaketa itsuaren emaitzak komentatu eta GrAL-aren inguruko ideiak; plagioa zer den eta nola ekidin daitekeen...
2016/09/26	Aukeratutako gaiaren inguruko bilaketa bibliografikoa, marko teorikoaren hezurdura, egin nahi dudaren ideia, galdera motorra eta helburua nagusia
2016/10/4	Marko teorikoa osatzen eta helburua definitzen
2016/10/11	Marko teorikoaren puzzlea osatzen hasi
2016/10/21	Marko teorikoa idazten, informazioa biltzeko tresna eta lanaren helburuak zehaztu
2016/11/1	Marko teorikoaren zirriborroa nahiko aurreratuta eta tresna ia amaituta
2016/11/8	Marko teorikoaren eta tresnaren feedback-a
2016/11/25	Informazioa bildua praktiketako ikastetxean
2016/12/5	Marko teorikoa zuzendu ahal izateko zalantzak argitu
2016/12/21	Metodologia egiteko datuak bildu
2017/01/24	Metodologia egiteko zalantzak argitu
2017/02/20	Marko teorikoaren antolamendu berriaren proposamena jaso
2017/04/12	Marko teorikoa ikusi nola doan eta zein puntutan nagoen Interpretazioa egiten hasi
2017/04/20	Metodologia eta emaitzen zati bat bidali ondo bideratuta dagoen jakiteko

2017/04/24	Marko teorikoko zuzenketak egin
2017/04/27	Marko teorikoko zuzenketak amaituta bidali. Emaitezkin jarraitu
2017/05/02	Metodoa eta emaitzen zatia zuzendu. Emaitezkin jarraitu
2017/05/04	Emaitzen zatia amaituta bidali zuzentzeko
2017/05/11	Emaitzen atalaren ideiak eta falta zaidanaren inguruko zalantzak argitu
2017/05/15	Hitz gakoak, sarrera eta ondorioak egin
2017/05/22	Lan guztiaren zuzenketak, laburpena eta hobetzeko proposamenak egin
2017/05/30	Azken zuzenketak
2017/06/02	Gral-aren entrega

4.2 Landa lana

4.2.1 Testuingurua

Gratu Amaierako Lana osatzeko, practicum III-ko denboraldia esku-hartzea egiteko erabili nuen. Azken praktikak Gasteizko Niño Jesus ikastetxean egin nituen eta esku-hartze hau hirugarren zikloan burutu nuen, 6.mailan hain zuzen ere. Hainbat ideia ulertzeko erraztasuna Lehen Hezkuntzako maila honetako ikasleek izango zutela pentsatuz, esku-hartzea hauekin aurrera eramatea erabaki nuen. Ikasleen marko teorikoan aipaturako hainbat ideien inguruko bizipenak eta pentsaerak aztertu ahal izateko, bakarkako galdeketa eta taldeetan egindako eztabaidak burutu nituen.

4.2.2 Diseinua

Ikasleei hasieratik Unibertsitateko lan garrantzitsu bat egiten lagundu behar zidatela esan nien, hori esanda, seriotasun pixka bat gehiagorekin egingo zutela pentsatuz. Horrez gain, edozein galdera baldin bazuten mesedez galdetzeko esan nien, edonola ez erantzuteko. Hasieran, galderak irakurtzeko denbora eman nien, zalantzak bazeuden guztion artean argitzeko. Hainbat galderetan zalantzak zeudela ikusita, agian euskara maila baxua zutelako,

galdera guztiak banan bana beste modu batera azaldu nituen, argiago geratzeko asmoz. Galdetegia osatu ostean, talde txikietako eta ondoren handiko eztabaidak sortu nituen. Landa lanarekin jarraitutako prozedura 2.taulan adierazita dago.

Informazioa, galdetegietan idatzitako emaitzetatik eta eztabaida bideratzeko erabilitako galderen erantzunetatik atera ditut. Azken honetan, talde txiki bakoitzari galderez osatutako orri bat eman nien bertan idatz zezaten erantzun eta ideia guztiak, modu horretan, ideia gehiago jasotzeko. Jarraian, talde txiki bakoitzak idatzitako ideiak altuan esan eta horren inguruan hitz egitean ideia gehiago atera zirenez, nik neuk jaso nituen orri batean.

2. taula. Landa-lana egiteko kronograma

DATA	HELBURUA	ZEREGINA	TRESNA
2016/11/17	Lanari buruzko informazioa helaraztea	Tutoreari egin beharrekoa komentatu eta taldea adostu	
2016/11/22	Tutorearekin batera erabakiak hartzea	Esku-hartzea egin beharreko ikasleen tutorearekin eguna eta ordua adostu	
2016/11/25	Galdetegia: -Ikasleek dituzten estereotipoak zeintzuk diren jakitea -Estereotipatzen gaituzten esaldiak entzuten dituzten edo ez jakitea -Ikasleen ustez "emakume" eta "gizonezkoen" kirolak dauden edo ez jakitea -Berdintasunaren inguruko zein ideia duten jakitea Eztabaida: -Ikaskideekin estereotipoen inguruan hitz egitea -Generoen berdintasunaren inguruko ideiak garatzea -Errealitatearen kontziente izatea	Landa lanaren esku-hartzea	Galdetegia eta eztabaida

4.2.3 Partaideak

Galdetegi eta eztabaida 23 ikaslerekin egin nuen, horietako 9 neskak eta gainontzekoak mutilak izanik, 14 zehazki.

4.2.4 Informazioa jasotzeko erabilitako tresnak

Alde batetik, bederatzi galderaz osatutako galdetegi (ikus 1. eranskina) bat pasatu nien, bakoitzak bakarka bete zezan. Beste alde batetik, eztabaida bat sortu nuen. Eztabaidan ikasle guztiek parte har zezaten eta horrela ideia gehiago ateratzeko, lehenengo, 4-5 pertsonako 5 talde txiki egin nituen. Orientazio modura, 6 galdera eta bi irudi eman nien, horien inguruan eztabaidatzeko (ikus 2. eranskina). Ondoren, talde handian, eztabaidan agertutako ideiak partekatu eta horien inguruan hitz egin genuen, ahalik eta datu gehien jaso ahal izateko.

Esan bezala, landa-lana egiteko bi tresna erabili ditut, alde batetik bakarkako galdetegi eta beste alde batetik eztabaida. Bi tresnak nik neuk asmatu nituen marko teorikoan jarritako ideietan oinarrituz.

4.2.5 Jasotako informazioa tratatzeko prozesua

Informazio guztia jaso ostean, galdera eta erantzun guztiak ondorengo kategorietan sailkatu nituen, 3. taulan sistema kategoriala ikus daitekeela:

3.taula: sistema kategoriala

Dimentsioak	Kategoriak
Estereotipoak	Kirol sexuatuak
	Berdintasuna
	Aurreiritzi sexistak
Komunikabideak	Generoen arteko
Kirol praktika	Diskriminazioa
	Berdintasuna
	Aurreiritziak
	Kirol mistoa
	Sozializazioa

Dimentsioen deskribapena honako hau da:

- *ESTEREOTIPOAK*

Kategoria honetan, ikasleek, kirolak emakumeenak edo gizonezkoenak diren uste duten edo ez agertzen da eta kirol horien aurreiritziak. Horrez gain, emakumeak eta gizonezkoak berdinak diren edo ez esateaz gain, arrazoitu ere egiten dute. Eta inguruan entzuten duten esaldi sexistei buruz ere hitz egiten da.

- *KOMUNIKABIDEAK*

Kategoria honetan, komunikabideek gizakiongan duen eraginaren inguruan ikasleek duten ideiak agertzen dira, generoen arteko ezberdintasunean zentratuz.

- *KIROL PRAKTIKA*

Kategoria honi dagokionez, gizakiok kirola praktikatzeko orduan, sexuaren arabera diskriminaziorik jasotzen dugun eta berdinak garen edo ez agertzen da eta horien aurreiritziak. Horrez gain, kirol mistoa praktikatzearen inguruko iritzia agertzen da eta kirol bat aukeratzeko orduan familiak eragina izan duen edo ez.

5. EMAITZAK

Atal honetan, galdetegiko eta eztabaidako emaitzen analisia egingo dut. Esan beharra dago, aztertutako ikasle taldeko guztiek batek ezik kirola praktikatzen dutela eta beraiek izan direla aukeratu dituztenak, hau da, ingurukoek ez dietela esan zein kirol praktikatu behar duten. Neskek, tenisa, atletismoa, saskibaloia, padela, karatea eta dantza bezalako kirolak praktikatzen dute eta mutilek, saskibaloia, tenisa, boxeoa, padela, karatea, futbola, igeriketa eta atletismoa. Neskek eta mutilek kirolak partekatzen dituztela ikus daiteke, baina, mutilen artean dantza ez da agertzen eta nesken artean futbola ezta. Horrez gain, aipatzekoa da, neskek kirol bakarra praktikatzen dutela eta mutil erdiak baino gehiagok, kirol bat baino gehiago.

Hau esanda, ondorengo lerroetan, hainbat emaitza emango ditut aurretik aipatutako kategorietan banatuta:

5.1 Estereotipoak

5.1.1 Kirol sexuatuak

Ikasleen artean hainbat ideia komun agertu ziren, esaterako, ez daudela “nesken kirolak” eta “mutilen kirolak”. Eztabaida, honen inguruan hitz egitean ikasle batek honako esaldi hau esan zuen:


“Batuetan jendeak pentsatzen du neska edo mutila izateagatik ezin dutela kirol bat edo beste praktikatu” (ET_M1)

Hau esatean, beste inork ez zuen honen aurkako beste ideiarik adierazi, gainontzekoak ados zeudela zirudien. Guztiak horren alde zeudela iruditu arren, bakarkako galdetegian bestelako ideiak agertu ziren bi mutikoen erantzunetan:

“Gizonezkoena: bizikletan ibiltzea, kit boxing egitea... Emakumezkoena: baleta, korrika egitea...” (G3_M1)

“Kirol batzuk errazak dira neskentzat eta beste batzuk mutilentzat” (G3_M2)

Nahiz eta bi mutikok bakarrik aipatu ezberdintasun hau, galdetegian, kirol ezberdinak praktikatzen zeuden emakume eta gizonezko irudiak emakumezko, gizonezko edo emakumezko eta gizonezko irudiekin lotzeko adierazi zitzaizkionean, kontrako emaitzak agertu ziren:




1. gafikoa: Kirol sexuatuak daude?

1.grafiko horretan, 11 ikaslek kirol guztiak gizonezkoek eta emakumezkoek praktikatu dezaketela uste dute, hau da, kirolak ez direla sexuatuak (ikus 3. eranskina). Gainontzekoek aldiz, galdetegiko irudietako kirol batzuk emakume eta gizonezkoen irudiekin lotzeaz gain, beste zenbait irudi emakume edo gizonezkoaren irudiarekin bakarrik lotu dute. Hala, mutil gehienek gimnasia erritmikoa nesken kirol gisa ikusten dute, mutilen erdiak baino gehiagok hain zuzen ere. Ideia hau neska batzuk ere partekatzen dute, baina, erdiak baino gutxiagok, heren batek zehazki. Baletari dagokionez, gimnasia erritmikoaren irudiarekin bezala, inork ez

du mutilaren irudiarekin bakarrik lotu, hau da, hiru pertsonen neskaren irudiarekin bakarrik lotu dute. Bi irudi horiek emakumezkoaren irudiarekin lotzearen arrazoiak, kirol horiek praktikatzeko beti emakumezkoak ikusi dituztela izan daiteke, nahiz eta baletako irudian mutiko bat eta hainbat neska agertzen diren baleta egiten hiru ikasle hauek emakumearen irudiarekin lotu baitute. Azkenik, badaude bi ikasle gimnasia artistikoaren irudia mutikoaren irudiarekin lotu dituztenak (ikus 4. eranskina). Kirol hau ez denez asko ikusten, baliteke honen inguruko ezagutzarik ez izatea eta irudian mutiko bat agertzeagatik mutikoaren irudiarekin lotu izatea.

Galdetegiko beste galdera batean, dantzari eta kirolari baten irudia marraztu behar zuten. Bertan, horien irudiak emakume edo gizonezko batenak ziren aztertu nahi zen. Nahiz eta emakume bat ile motzarekin joan daitekeen eta gizonezko bat ile luze eta soinekoarekin, ikasleen marrazkiak aztertzerako orduan, bi genero horien estereotipoetatik abiatuko naiz, hau da, ile luze edo soinekoa badu emakumea den bezala aztertuko dut eta ile motza badu gizonezkoa. Modurik zuzenena ez bada ere, haurrak askotan estereotipoz beteta daude eta gehiago txikitzen, generoen irudiak hainbat estereotipoz beterik ikusten baitute egunerokotasuneko liburuetan, telebistan eta abar.

2. grafiko honetan, neska eta mutikoek kirolari eta dantzariaren irudiak egiterakoan, neska edo mutikak marraztu zituzten azaltzen da:




2. grafikoa: Marrazkiak

2. grafiko honetan, argi ikusten da, ikasle gehienek kirolaria eta dantzaria marraztean mutilaren irudia marraztu dutela. Neskei dagokienez, kirolaria mutil bat marraztu dutenak sei izan dira eta dantzari mutila marraztu dutenak bost. Jakinda neskak bederatzi direla, erdiak baino gehiagok. Mutilak ere gehiengoak izan dira egin beharreko irudiak mutilenak marraztu dituztenak, kirolaria hamarrek eta dantzaria bederatzik, hain zuzen ere. Aipatzekoa da, mutiko batek dantzariaren marrazkia egiterakoan, gizonezkoen estereotipoz marraztu duela eta azpian "neska" jarri duela (ikus 5. eranskina). Harrigarria da gehienek dantzariaren irudia

mutilaren irudiarekin lotzea, batez ere mutilek harritu naute, 1. grafikoan argi ikusi baita mutil gehienek gimnasia erritmikoa neskaren irudiarekin lotzen zutela. Aldiz, bai neska eta baita mutil gehienek kirolariaren irudia egiterakoan mutil batena egiteak ez nau harritu, komunikabideak gizonezko kirolariez beterik baitaude. Haez gain, bi neska eta bi mutilek marrazkiak egitean, bi generoen irudiak egin dituzte. Neska batek, bi irudietan bi generoak marraztu ditu (ikus 6. eranskina) eta beste neskek, kirolarien irudian bakarrik. Mutilek ordea, dantzarien irudietan bakarrik marraztu dituzte bi generoen irudiak.

Kirolaria marrazterakoan, nesken artean futbola eta saskibaloia besterik ez da ageri. Gainera, azken kirol honen marrazkiak gehienengoak ziren (ikus 7. eranskina). Mutilek marraztutako irudietan, aldiz, hainbat kirol ezberdin agertzen ziren; karatea, tenisa, beisbol, futbola, saskibaloia... Hauen artean gehienagoak futbol jokalaria bat marraztu zuten, baina, beste hainbatek saskibaloia jokalaria ere irudikatu zuten. Mutilen artean bariazio gehiago ageri da kirolari bat marrazterakoan, neskek bi kirol ezberdin bakarrik irudikatzen baitute.

Egunerokotasun batean hurren artean entzuten diren esaldien inguruan ere galdetu zitzairen. Esaldi horiek irakurtzean, neskek, mutilek edo biek esaten dituzten adierazi behar zuten ikasleek. Beheko 3. grafiko honetan, ikasleen erantzunak agertzen dira:



3. grafikoa: Jardueri generoa jartzen al zaie?

Askotan pentsatzen da 3. grafikoko esaldiak bezalakoak neskek edo mutilek esaten dituztela, hau da, jarduera bakoitzak gero bat edo beste duela. Hori horrela, gaur egungo ikasleek horren inguruan zer uste zuten jakin nahi nuen. 3. grafikoan argi ikusten da, ikasleek lau esalditik hiruei ez dietela genero konkretu bat jartzen. Hau da, bigarren esaldia kenduta, beste hiruetan esaldi horiek neskek eta mutilek esaten dituztela diote ikasleek. Bigarrenari dagokionez, "jolas orduan sokasaltoan ibiltzea gustatzen zait" esaldia hain zuzen, ikasleek nesken jarduera bat dela uste dute, baina, ikasle batengatik. Hau da, 12 ikasle nesken

jarduera bat dela uste dute neskek esaten dutelako eta 11 ikaslek biena. Beraz, esan daiteke, ikasleek jarduerari ez dietela genero bat edo beste jartzen.

5.1.2 *Berdintasuna*

Aurreko atalean agertutako ideiarekin kontraesana kontuan izanda, bi sexuak berdina diren galdetzean, ikasle gehienek baiezko erantzun zuten, honelako esaldiez arrazoituz:

“Guztiak ahal dute berdina egin” (G7_M3)

Baina, gutxi batzuk, ez gairela berdina adierazi zuten:

“Ez, ez gara berdina, inor ez da berdina. Nire ustez ezberdina gara, baina, eskubide eta aukera berdina ditugu” (G7_N3)

“Ez, baina, esfortzatu bagara guztiok berdina izan ahal gara” (G7_M5)

Ezetzko ideia zutenen artean, bazeuden bi neska sexu ezberdinen arteko bereizketaren arrazoiak adierazten zutenak. Batak, sexu ezberdineko pertsonen rol ezberdina betetzen dituztela uste dutelako arrazoitzen du eta besteak, gizonek emakumeek baino gaitasun fisiko batengatik ezberdina direla justifikatzen zuten. Zehazki honela esaten zuten esaldiek:

“Ez, munduan gauza asko daude eta mutilek gauza batzuk egiten dituzte eta neskek beste batzuk” (G7_N4)


“Ez, mutilak neskek baino indartsuagoak direlako” (G7_N5)

5.1.3 *Aurreiritzi sexistak*

Eztabaidan zehar, kirolen erraztasunen inguruan hitz egiten jardun ginen momentutxo batez. Orduan, mutiko batek harridura utzi ninduen hau esan zuenean:

“Kirol batzuk errazagoak dira gizonezkoentzako emakumezkoentzako baino” (ET_M3)

Agian mutikoak ez zekien zer esan zuten ere. Baliteke inguruan entzundako ideia bat izatea eta haurrak hori barneratua izatea. Gazteen artean esaldi sexistak entzuten ziren ere jakin nahi nuenez, ezagunak egiten zitzaizkidan bost esaldi jarri nituen galdetegian, 6. galderan zehazki. Bertan, 7 neskek eta 13 mutilek horietako esaldiren bat entzun izan dutela adierazi dute. Horien artean 2 neskek eta 4 mutilek esaldi sexista horien biktimak izan direla adierazi dute. Gainontzekoek, beste pertsona bati esatean entzun izan dute. 4. grafiko honetan beste pertsonari esandako esaldi horien biktimak zenbat izan diren agertzen da:



4. grafikoa: Esaldi sexistak

Neskei eta mutilei zuzendutako esaldi sexista horiek entzuten dituztela argi adierazten du grafikoa. Gainera, esaldi bakoitzeko biktima kopurua altua da. Neskei zuzendutako hiru esaldi sexista horien biktimak 23 neska izan dira, ikasleek noizbait neskaren bati esaldi hori esan diotenaren testigu izan direla adierazi baitute. Mutilei zuzendutako bi esaldi sexistei dagokienez, ikasleek horien biktimak 20 mutil izan direla adierazi dute.

5.2 Komunikabideak

5.2.1 Generoen arteko ezberdintasunak

Komunikabideen inguruan ere hitz egin genuen, nolako eragina duten gizakiongan, zenbat pertsonaia ospetsu ezagutzen dituzten eta zein generoetakoak diren gehiengoak, zein kirol ikusten den gehien komunikabideetan eta abar. Eztabaidan zehar honen inguruan hitz egin genuen tartetxoan, ikasle guztiek batek ezik gizonezko kirolari ospetsu gehiago ezagutzen zituztela adierazi zuten. Horien artean esaldi hau aipatu zuen ikasle batek:

"Gizonezko ospetsu gehiago ezagutzen ditugu, telebistan gehiago agertzen direlako" (ET_M4)
Baina, horrekin ados ez zegoen mutiko batek honela erantzun zuen horren aurrean:

"Nik ez ditut mutil ospetsu gehiago ezagutzen, boxeoa ikusten dut eta neska eta mutilak berdin ezagutzen ditut" (ET_M5)

Nahiz eta mutil batek bakarrik esan neska eta mutil kirolari kopuru bera ezagutzen dituela, argi dago gehiengoek gizonezko kirolari gehiago ezagutzen dituztela, nahiz eta hainbat emakume kirolarik ere ezagutu. Horren eragile nagusia ikasleen ondo aipatu bezala, telebista da. Gainera, futbolari dagokionez, komunikabideetan futbola dela gehien ikusten den kirola aipatu dute eta beste hainbat kirol ez direla agertu ere egiten. Horrez gain,

futbolari mutilen inguruan bakarrik hitz egiten dutela diote. Horren inguruan hausnarketa bat egiteko asmoz eta hori elikatzen dugunak gu geu garenaren kontzientzia pixka bat izateko, nesken edo mutilen futbol partiduek izaten duten ikusle kopuruaren inguruan galdetu nien. Ikasleek berehala mutilenak askoz gehiago izaten dutela esan zidaten eta nik neuk bizitakoa kontatzearekin batera, ikusle kopuruak kirol batek indar gehiago edo gutxiago izatea eragiten duela esan nien.

5.3 Kirol praktika

5.3.1 Diskriminazioa

Kirolean dagoen diskriminazioaren inguruan ere hitz egin genuen, ikasleak horren inguruko kontzientzia izateko. Gai horren inguruan jardutean, ikasleak hainbat esaldiren artean honako hauek esan zituzten:

“Mutil batzuek ez dute ‘emakumeen kirolak’ praktikatzen umilatua izateko beldurra dutelako” (ET_M6)

“Emakumeok nahi duguna praktikatu dezakegu, baina, batzuetan eskubide gutxiago ditugu” (ET_N1)

“Batzuetan mutilek kirol bat edo beste praktikatu nahi dute, baina, jendeak ‘mariquita’, bezalako irainak esatearen beldur direnez, ez dira ausartzen kirol batzuk praktikatzera” (ET_N2)

“Batzuetan, batzuek besteei mindu egiten die irainen bidez, esaterako, ‘maricón’ edo ‘nenaza’ deituta” (ET_N4)

Ikasleek esandako esaldi hauei arreta jarriz, ikus daiteke noizbait kirol diskriminazioaren bat ikusi dutela edo beraiek izan daitezkeela biktimak, hau da, kirol bat praktikatu nahi izan eta besteek zer esango dioten beldurrarengatik ez dutela praktikatu. Horrez gain, gizartean dagoen diskriminazioaren berri ere badute, neska batek, emakumeek batzuetan eskubide gutxiago dutela aipatu baitu.

5.3.2 Berdintasuna

Kirol diskriminazioaren inguruan hitz egitean, ea bi generoak ezberdinak diren galdetu nien eta “emakumeen kirolak” eta “gizonezkoen kirolak” dauden. Horrekin lotuta, beraiek genero batekoak edo bestekoak izateagatik kirol batzuk edo besteak praktikatu ditzaketen galdetu nien. Beraiek, berehala ezetz erantzun zidaten, berdinak garela eta hainbat ahotsen artean, honelakoak entzun nituen:

“Ez daude emakumezkoen eta gizonezkoen kirolak, esfortzua egiten baduzu hoberena izan zaitezke” (ET_N5)

“Nahiz eta neska edo mutila izan, kirol bat edo beste praktikatu dezakegu berdinak garelako” (ET_N/M)

“Kirol guztiak dira neska eta mutilenak” (ET_N/M)

“Ez daude neska eta mutilen kirolak, nahi ditugun kirolak praktikatzen ditugu” (ET_N/M)

Nahiz eta galdetegian irudiak generoekin lotzerakoan erantzun asko eztabaidan esandako baieztapen hauekin bat ez etorri, talde handian hitz egiterakoan “gizonezkoen kirolak” eta “emakumezkoen kirolak” ez zeudela argi utzi zuten. Gainera, “gizonezkoen” eta “emakumezkoen” kirol bezala ikusita dauden bi irudi jarri nien, baina, generoak aldatuz. Hau da, neska bat futbolean jolasten eta mutiko bat baleta egiten. Horren aurrean zuten erreakzioa zein zen jakin nahi nuenez, ea bi irudi horiek arraroak egiten zitzaien galdetu nien. Ikasle guztiek ezetz erantzun zuten, irudiak errealak izan daitezkeela. Ahotsen artean honelako esaldi bat entzun nuen:

“Normala da mutil batek baleta egitea eta neska batek futbola” (ET_N/M)

5.3.3 Aurreiritziak

Nahiz eta bi irudiak arraroak ez iruditu eta bi generoak berdinak direnaren ideia argi izan, horien inguruko hainbat aurreiritzi dituzte. Irudien inguruan hitz egitean, neska batek harrিতuta utzi ninduen generoen inguruan orokortasun batean hitz egin zuenean. Hauxe esan zuen ozen:

“Mutilak ez dira oso onak baleta egiten, baina, ahal dute egin” (ET_N6)

“Mutilak oso onak dira futbolean eta neskak, aldiz, ez dira oso onak baina egin ahal dute” (ET_N6)

Gainontzeko ikasleek horren aurrean ez zuten ezer esan, ez ziren horren alde ezta kontra azaldu.

5.3.4 Kirol mistoa

Berdintasunaren inguruan hitz egin ostean eta aurreiritziak ere bazeudela jakinda, talde handian eztabaidatzean, praktikatzen duten kirola talde mistoan praktikatzearen inguruan zer uste duten galdetu nien. Baiezko erantzunak bakarrik entzun ziren eta mutil batek hauxe esan zuen:

“Ondo iruditzen zait neskek eta mutilek nahastuta egitea kirola eta ondo dago, nik saskibaloia egiten dut eta badaude neskak” (ET_M7)

Galdetegiko emaitzek ez dute kontrakoa esaten, ikasle guztiek baiezko erantzun zuten, gustatuko litzaiekeela praktikatzen duten kirola mistoa izatea. Hauek izan ziren neska eta mutilek horren zergatiaren erantzun batzuk:

“Berdinak garelako” (G8_N6)

“Horrela elkarrengandik ikasteko aukera dagoelako” (G8_N7)

“Modu horretan beste batzuek zer egin dezaketen jakin dezakegulako” (G9_N8)

“Dibertigarriagoa da” (G8_M8)

“Horrela guztiok berdinak garela ikus daiteke” (G8_M9)

“Horrela lagun gehiago izan ditzakezulako” (G8_M10)

5.3.5 Sozializazioa

Praktikatzan duten kirolaren inguruan ere galdetu nien. Familia sozializazioaren parte denez eta eragin handia duenez, praktikatzan duten kirola aukeratu dutenak beraiek izan diren edo norbaitek esan dieten zein kirol praktikatu behar zuten galdetu nien. Ikasle guztiak, beraiek erabaki zutela erantzun zuten, baina, ikasle batek honako hau erantzun zuen:

“Bai eta ez. Sei urterekin baletera joaten nintzen eta ez zitzaidan gustatzen, baina, orain dantza modernoa egiten dut eta gustatzen zait” (G4_N1)

6. ONDORIOAK

Atal honetan, emaitzetako hiru dimentsioen kategoriak marko teorikoko ideiekin erlazionatuko dira.

Lehenengo dimentsioa *estereotipoei* dagokio. *Kirol sexuatu*en kategoriari dagokionez, Alvarez Bueno eta bere laguntzaileen (in Vizcarra, Macazaga eta Rekalde, 2009) ikerketek, gazteek “emakumeen kirolak” eta “gizonezkoen kirola” daudenaren ustea dutela baieztatzen dute. Aztertutako ikasleak ideia honekin bat eta kontra datozela esan daiteke. Talde handiko eztabaidan zehar ikasleak ideia horren kontra adierazten ziren, baina, galdetegian irudiak generoekin lotzean alderantzizko datuak agertu ziren. Beraz, esan daiteke, gazteek generoen arabera kirolen bereizketa bat egiten dutela. Baliteke, ikasleek genero bakoitzarentzat kirolik ez daudela barneratuta izatea eta horregatik besteekin hitz egitean ideia hori defendatzea, egun, gero eta gehiago bultzatzen baita ideia hori eta orokorrean gazteak ideia horren inguruan hezten direlako. Hala eta guztiz ere, izan daiteke inkontzienteki lotura bat egitea irudiekin egin zuten bezala, Peña eta Rodríguez-ek (2002) esan bezala, gizartean genero bakoitzaren ekintzak bideratzen dituzten eskemak daudelako.

Beste alde batetik, ikasle bakoitzak egindako dantzari eta kirolari baten irudiak daude. Garcia eta Guerrak (2001) ondo adierazi bezala, helduek haurrei janzteko, ilea mozteko moduak... ezberdinak izaten dira neska edo mutila bada. Hori horrela, haurrek ikus-ezaugarri horiengatik generoak bereizteko gaitasuna dute. Ezaugarri horiek barneratuak izategatik, emakume edo gizonezko bat marraztean, orokorrean ezaugarri-fisiko horiek

marrazten dituztela esan daiteke, nahiz eta marrazki batzuk estereotipo horien aurka joan. Horregatik eta komunikabide eta iragazkietan hainbat estereotipo transmititzen dituztela eta kirolari guztien irudiak mutilenak direla kontuan izanda, Latorre et al (2007) eta Vizcarra, Macazaga eta Rekaldek (2009) ondo aipatu bezala, ikasle gehienek kirolariaren irudia marraztean gizonezko bat marrazten dutela ondorioztatu daiteke. Baina, dantzariaren marrazkia egiterakoan, arraroa da gehienek "mutilen" ikus-ezaugarriez marraztea. Baliteke, berain gustukoa den edo ezagutzen duten dantzari bat mutil bat izatea eta horregatik marraztea mutil baten irudia.

Berdintasunaren inguruan hitz egitean, bi ikaslek ezik beste guztiek gizaki guztiok berdinak garela erantzun zuten, guztiok berdina egin dezakegula esanez. Ezetza erantzun zutenek, genero bat bestearen gainetik jarriz edo bereiziz arrazoitu zituzten beraien erantzuna. Azken erantzun hauek harritzekoak badira ere, batez ere hierarkizazioarena, baliteke bere inguruan horrelako jokaeraren bat ikustea eta horregatik ematea erantzun hori. Erantzun hauek alde batera utziz, ia guztien erantzunak berdintasunaren aldekoak direla esan daiteke. Beraz, ondorioztatu daiteke, egun berdintasunean oinarritutako heziketa bat dagoela.

Aurreiritzi sexista kategoriari dagokionez, galdetegiak emaitzen ondorioz esan daiteke gaur egungo gazteak esaldi sexisten biktimak direla. Hori, Subirats-ek (1994) esandako ideiarengatik izan daiteke, hau da, genero bat edo bestekoa izateagatik jarrera espezifiko eta ezberdin bat izan behar dutela adierazten zaielako gazteei hainbat esaldi sexisten bidez.

Bigarren dimentsioa *komunikabideena* da. Hori osatzen duen kategoria *generoen arteko ezberdintasunak* izenekoa da. Komunikabideek duten eragina nabarmena da ikasleen artean, kirolari ospetsuak aipatzean, gizonezkoak baitira gehienak. Horrez gain, ikasleak beraien kontziente ziren telebistako kirolik nagusia gizonezkoek praktikaturako futbola zela. Beraz, egiaztatu daiteke, gizonezkoek praktikaturako futbola, kirol espektakulua, informazio zentroa dela (Latorre et al., 2007; Vizcarra, Macazaga eta Rekalde 2009).

Hirugarren eta azken dimentsioa *kirol praktikari* dagokio. *Diskriminazioaren* kategoriari dagokionez, ondorioztatu daiteke aztertutako ikasleak diskriminazioaren biktimak izan daitezkeela edo horren kontzientzia badutela gutxienez. Ikasle batzuek, gazte batzuek, umiliatuak ez izateagatik kirol batzuk ez zituztela praktikatzeko aipatzen zuten. Hori horrela, ikasleen uste edo baieztapen horiek, Sagarzazu eta Lallana-k (2012) esandakoarengatik izan daiteke, hau da, jaso dezaketen txantxen beldurrarengatik. Hori horrela, gehiengoek praktikatzeko duten kirola praktikatzeko dute. Horrekin lotuta, aipatzekoa da, nahiz eta kirol guztiak bi generoenak direla esan, mutikoek dantza ez dutela praktikatzeko, hau da, "emakumeen kirol" bezala izendatutako kirol bat. Eta neskek ere "gizonezkoen kirol" bezala izendatzen den kirol bat, futbola, ez dute praktikatzeko.

Aurreiritziei dagokienez, ikasleek generoen inguruko aurreiritzi bat edo beste badituztela ikusi da, eztabaidan zehar esaldiren bat edo beste esan baitzituzten. Horien artean, ikasle batek mutilak futbolean onak direla eta neskak ez hain onak, baina, izan ahal zirela aipatu zuen. Ideia hori ez dela zuzena esan daiteke, adibide garbia bat aurten neska talde batek futboleko liga maskulinoa irabazi duela da (Tronchoni, 2017).

Kirol mistoaren inguruan ere eman zuten beraien iritzia eta ikasle guztiak horren alde agertu ziren, Vizcarra, Macazaga eta Rekaldek (2009) egindako ikerketan aztertutako ikasleen emaitzekin bat etorritik.

Azkenik, *sozializazioaren* inguruko dimentsioa dago. Ikasleek praktikatzan duten kirolaren inguruan hitz egitean, ingurukoek ez zirela esan zer praktikatu adierazi zuten. Baina, baliteke, Carratalá, García eta Carratalák (2003) esan bezala, lagunek eragina izatea zeharka, hau da, lagunek kirol bat aukeratu izanagatik besteek ere hori aukeratzea. Beste alde batetik, esan beharra dago, neskek kirol bakarrik praktikatzan dutela eta mutilen erdiak baino gehiagok kirol bat baino gehiago. Hau, baliteke, familiaren eraginarengatik izatea, familiek haurren jartzen duten jarrera eta itxaropena sexuaren arabera aldatu egiten baita. Neskak etorkizunean kirolek ezingo direla bizi uste dutenez, itxaropen gutxiago dute (Diez eta Guisasola, 2002). Baliteke, horregatik gurasoek neskei kirol bakarrik egitera bultzatzea eta mutilei bat baino gehiago.

7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Behin lana amaituta, esan beharra dut, nahiko gustura geratu naizela egindako lanarekin. Lana kurtso hasieratik hasi eta poliki-poliki aurrera pausuak ematen joateak, lana erraztu didala uste dut. Baina, hala eta guztiz ere, prozesu guztia nola joan den jakinda, esku-hartzearen zenbait gauza aldatuko nituzke.

Esku-hartzea egiteko erabilitako tresnak, egokiak izan dira eta informazioa modu erraz batean jasotzeko balio izan dute. Bi tresnak ahalik eta modu errazenean ulertzeko egin nituen, ikasleek euskara maila altua ez zutela banekielako. Hala eta guztiz ere, galdetegia betetzerako orduan hainbat zalantza sortu ziren. Emaitzak aztertzerako orduan, galdetegiko galdera batzuk nahasiak izan zitekeela ohartu nintzen. Hori horrela, modu sinpleago batean jartzea egokiagoa litzatekeela uste dut. Horrez gain, galdetegi pertsonalean beste zenbait galdera sartu beharko nituela uste dut, eztabaidan zehar hainbat ideia interesgarri eta harrigarrien aurrean ikasleek ez baitzuten ezertxo ere esan, esaterako, "gizonezkoak emakumezkoak baino indartsuagoak dira" bezalako esaldien aurrean. Beraz hau esanda, agian, lehenik eta behin eztabaida egitea eta hortik ideia batzuk hartu eta behin galdetegia

osatuta pasatzea aberasgarriagoa izango litzateke, adibidez, ikasleen artean esandako esaldi harrigarriak jarriz eta horien ondoan “ados nago” edo “ez nago ados” jartzeko.

Eztabaidari dagokionez, hasiera batean talde txikietan elkartzea eta ondoren talde handian amaitzea ondo egin nuela uste dut, talde handian jende gutxiagok hitz egiten baitu normalean. Hala eta guztiz ere, eztabaidatzeko denbora gehiago hartu behar nuela uste dut. Agian, egun ezberdinetan egitea ere interesgarria litzateke, adibidez, estereotipoen inguruko pelikula bat ikusi eta horren inguruan eztabaidatzeko.

Baliteke, aipatutako moduan informazio gehiago eta interesgarriagoa biltzea, baina, agian informazio gehiegi jasoko nuen eta zailagoa egingo zitzaidan lana egitea. Beraz, lana egiteko nuen denborarako erabilitako modua nahiko egokia izan dela uste dut.

8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Alfaro, E. et al. (2011). *Deporte y mujeres en los medios de comunicación*. <http://www.pilarlopezdiez.eu/documents/CSD.LibroDeporteymujeres.pdf> -tik berreskuratua.
- Alvariñas, M., Fernández, M. A., eta López, C. (2009). Actividad física y percepciones sobre deporte y género. *Revista de investigación en educación*. <http://reined.webs.uvigo.es/ojs/index.php/reined/article/viewFile/58/52> -tik berreskuratua.
- Balauer, I. (Ed.). (2002). *Estilos de vida en la adolescencia*. Valencia, España: Editorial Promolibro.
- Carratalá, V., García, A., eta Carratalá, E. (2003). Análisis de las diferencias por género y grupo en los factores de los iguales relacionados con la práctica deportiva. *Psicología del Deporte*, 7 (2), 283-293.
- Comité Olímpico Español (2007). Jornada “mujer, deporte y comunicación”. *Comisión Mujer y Deporte*. <http://www.mujerydeporte.org/documentos/docs/CONCLUSIONES%20JORNADA%20MUJER%20DEPORTE%20Y%20COMUNICACION%202007.pdf> -tik berreskuratua.
- De Paz, D. (2004). *Prácticas escolares y socialización: la escuela como comunidad* (Tesis doctoral). Barcelona: Universidad Autónoma de Barcelona.
- Diez, C. eta Guisasola, R. (2002). Itxaso proiektua: *Hamabi eta hemezortzi urte bitarteko neska gazteak kirol praktika uztera eramaten dituzten zergatiak eta arazo horretan esku hartzeko proposamenak*. Donostia: Kirolart. 2017ko azaroaren 17an berreskuratuta: <http://www.kirolarte.net/adminkirolarte/material/TXOSTENALABURPENAITXASOeuskera.pdf>
- Fontecha, M. (2006). *Intervención didáctica desde la perspectiva de género en la formación inicial de un grupo de docentes de educación física* (tesis doctoral). Gasteiz: Universidad del País Vasco (UPV/EHU). <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/7140/FontechaMirandaMatildeTD.pdf;jsessionid=C095F495573773CAE9073BFF9B0354AE?sequence=12>
- García, N., eta Guerra, M. T. (2001). *La enseñanza de las Ciencias Naturales en la escuela primaria*. México: Secretaría de Educación Pública.
- González, A. M., eta Otero, M. (2005). Actitudes de los padres ante la promoción de la actividad física y deportiva de las chicas en edad escolar. *Cuadernos de Psicología del Deporte*, 5 (1-2), 173-195.
- Herrera, P. (2000). Rol de género y funcionamiento familiar. *Revista Cubana de Medicina General Integral*, 16 (6), 568-573.
- Itatí, A. (1995). Socialización de género en la escuela primaria. *Boletín americanista*, 45, 177-187.

- Lallana, I. (2005). La mujer y los Juegos Olímpicos: análisis a través de los medios de comunicación. Retos para Beijing 2008. http://olympicstudies.uab.es/pdf/wp104_spa.pdf -tik berreskuratua.
- Latorre, P. A. et al. (2007). Mujer, deporte y medios de comunicación. *Efdeportes*, 106. <http://www.efdeportes.com/efd106/mujer-deporte-y-medios-de-comunicacion.htm>
- Macías, V. (1999). *Estereotipos y deporte femenino. La influencia del estereotipo en la practica deportiva de niñas y adolescentes* (Tesis doctoral). Universidad de Granada.
- Montañés, M., Bartolomé, R., Montañés, J., eta Parra, M. (2008). Influencia del contexto familiar en las conductas adolescentes. *Ensayos*, 17, 391-407.
- Pellicer, L. (2009). Garapenerako Hezkuntza hezkidetzaren ikuspegitik. Ekintzarako ereduak eta estrategiak. In del Rio, Amaia eta Lleó, Rocío (koord.) *Generoa Garapenerako Hezkuntzan. Estrategia politikoak eta metodologikoak* (36-46 or.) Bilbo: Hegoa eta Acsor.
- Peña, J. V., eta Rodríguez, M. C. (2002). Identidades esquemáticas de género en la escuela: a propósito del primer aniversario de la muerte de Pierre Bourdieu. *Revista de teoría de la educación*, 14, 2002, 235-263. http://campus.usal.es/~revistas_trabajo/index.php/1130-3743/article/viewFile/2998/3034 -tik berreskuratua.
- Prat, M., Soler, S., eta Carbonero, L. (2012). De las palabras a los hechos: un proyecto para promover la participación femenina en el deporte universitario. El caso de la universitat autònoma de Barcelona. *Ágora para la educación física y el deporte*, 14 (3), 283-302.
- Puig, N., eta Soler, S. (2000). Mujer y deporte en España: estado de la cuestión y propuesta interpretativa. *Apunts*, 76, 71-78.
- Ramos, D., González, J. L., eta Mora, J. (2007). Diferencias en las amplitudes articulares entre varones y mujeres en edad escolar. *Apunts. Medicina de L'Esport*, 153, 13-25.
- Ramos, F. eta Videra, A. (2011). Influencia del feedback específico y socioafectivo sobre la discriminación de género en las clases de educación física. *Wanceulen. Educación física digital*, 8. 2016ko abenduaren 6an berreskuratuta: http://rabida.uhu.es/dspace/bitstream/handle/10272/5310/Influencia_del_feedback_especifico_y_socioafectivo.pdf?sequence=2
- Rodríguez, D., Martínez, M. J., eta Mateos, C. (2004). Identidad y estereotipos de la mujer en el deporte. Una aproximación a la evolución histórica. *Revista de investigación en educación*, 2, 109-126.
- Sagarzazu, I. eta Lallana, I. (2012). La influencia de los estereotipos de género tradicionales en la participación deportiva de las mujeres y su reproducción en los medios de comunicación. In Suarez, J.C., Liberia, I.H. eta Zurbano, B. (Koord.) *I Congreso Internacional de Comunicación y Género*, (Libro de actas, (2032-2047or.). Sevilla: Universidad de Sevilla.
- Sainz de Baranda, C. (2013). *Mujer y deporte en los medios de comunicación: estudio de la prensa deportiva española (1979-2010)* (Tesis doctoral). Universidad Carlos III de Madrid, Getafe.

- Scraton, S. (1995). *Educación física de las niñas: un enfoque feminista*. Madrid: España: Morata.
- Soler, S. (2010). Más allá del fútbol: ¿la educación física en femenino?. *Aula de Innovación Educativa*, 191, 12-16.
- Subirats, M. (1994). Conquistar la igualdad: la coeducación hoy. *Revista Iberoamericana de Educación*, 6, 49-78.
- Tamburrini, C. (1999). El reto de las amazonas: el deporte de élite y la igualdad genérica. *Educación Física y Deportes*, 2. <http://www.efdeportes.com/efd17/amaz.htm> -tik berreskuratua.
- Tronchoni, N. (2017ko apirilaren 3a). Un equipo infantil formado por chicas gana la Liga de Segunda masculina. *El País*. http://deportes.elpais.com/deportes/2017/04/02/actualidad/1491150485_663639.html -tik berreskuratua.
- Villarroel, G., eta Sánchez, X. (2002). Relación familia y escuela: un estudio comparativo en la ruralidad. *Estudios pedagógicos*, 28, 123-141. http://www.scielo.cl/scielo.php?pid=s0718-07052002000100007&script=sci_arttext -tik berreskuratua.
- Vilodre, S. (2008). Deporte y cultura fitness: la generización de los cuerpos contemporáneos. *Revista Digital Univerditaria*, 9 (7), 1-11.
- Vizcarra, M. T., Macazaga, A M., eta Rekalde, I. (2009). *Eskolako kirol lehiaketan neskek dituzten baloreak eta beharrak*. Bilbo: Emakunde.

9. ERANSKINAK

1. eranskina: Galdetegia

Izena:

Neska / Mutila

1. Lotu irudiak (zenbakien bidez) gizonezko, emakumezko edo gizon eta emakumezkoaren irudiarekin:


1- NESKA



2- MUTILA



3- MUTILA ETA NESKA



2. Praktikatzan al duzu kirolik? Zein?

3. “Emakumeen kirola” eta “gizonezkoen kirola” al dago? Erantzuna “bai” bada, zeintzuk dira?

4. Ingurukoek esan al zizuten zein kirol praktikatu? Edo zuk nahi zenuelako aukeratu zenuen?

5. Nortzuk esaten dituzte ondorengo esaldi hauek, neskek, mutilek edo biek?

	N	M	N/M
“Futbolean ibiltzea gustatzen zait”	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
“Jolas orduan sokasaltoan ibiltzen naiz”,	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
“Panpinekin jolastea gustatzen zait”	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
“Patinean ibiltzen naiz”	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Inoiz entzun al diozu norbaiti aurreko esaldiren bat esaten? Erantzuna “bai” bada, aukeratu esaldia eta esan duen hori neska edo mutila den:

	Nork esan du?		
	N	M	N/M
<input type="checkbox"/> “Futbolean ibiltzea gustatzen zait”	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/> “Jolas orduan sokasaltoan ibiltzen naiz”,	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/> “Panpinekin jolastea gustatzen zait”	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/> “Patinean ibiltzen naiz”	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

6. Inoiz entzun al dituzu ondorengo esaldiren bat? BAI EZ

Erantzuna "bai" bada, aukeratu esaldia eta zuri edo beste bati esan dioten:

	NIRI	BESTE BATI: Neska/Mutila	
<input type="checkbox"/> "Mutila izan behar zinen futbolean aritzeko"	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/> "Horrela jantzita mutila ematen duzu"	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/> "Hori neskek egiten dute"	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/> "Mari-mutila zara"	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/> "Dantza egiten duzu neskek bezala?"	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Nork esan dizu horrelako esaldiren bat? **Neskak** **Mutilak** **Biek** **Inork ez**

7. Neskak eta mutilak berdinak al gara? Erantzuna "ez" bada, zergatik?

8. Gustuko duzun kirola praktikatzeko, neska eta mutilez osatutako taldeak egotea gustatuko litzaizuke? Zergatik?

9. Marraztu ezazu kirolari eta dantzari bat:

2. **eranskina:** Eztabaidatzeko galderak

Zenbat zarete taldean? **NESKAK:**

MUTILAK:



→Eztabaidatzeko galdera posibleak (erantzun batean adostasun osoa ez badago, erantzun guztiak idatzi):

- Gizonezkoen eta emakumezkoen kirolak al daude? Zeintzuk dira?

- Zuek mutil edo neskak izanda, kirol batzuk edo besteak praktikatu al ditzakezue edo nahi dituzuenak? Zergatik?

- Irudiak arraroak egiten al zaizkizue? Zergatik?

- Posible da irudi horiek errealak izatea? Erantzuna "ez" bada, zergatik?

- Gizonezko batek ezin al du ballet-a egin? Eta emakumeak futbola? Erantzuna "ez" bada, zergatik?

- Ezagutzen al dituzue emakume eta gizonezko kirolari ospetsuak? Nortzuk?

→Eztabaidan agertutako beste ideia batzuk:


-
-
-

→ONDORIOAK:


3. eranskina: Irudi guztiak neska eta mutilarekin lotuta

1. Lotu irudiak (zenbakien bidez) gizonezko, emakumezko edo gizon eta emakumezkoaren irudiarekin:


1- NESKA 2- MUTILA 3- MUTILA ETA NESKA



3 3 3 3




3 3 3




4. eranskina: Gimnasia artistikoa mutilaren irudiarekin lotuta

1. Lotu irudiak (zenbakien bidez) gizonezko, emakumezko edo gizon eta emakumezkoaren irudiarekin:


1- NESKA 2- MUTILA 3- MUTILA ETA NESKA




3 3 2 3




3 2 3



5. eranskina: Dantzariaren marrazkia



6. eranskina: Dantzari eta kirolarien marrazkiak



7. eranskina: Saskibaloia jokalarien marrazkiak

